

IRAKASLE FEMINISTAK: GAUR EGUNGO EGOERAREN ANALISIA ETA ERRONKA BERRIAK

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Garcia de Eulate Urra, Getari.

ZUZENDARIA: Lasarte Leonet, Gema.

Lehen Hezkuntza Hirueleduneko Gradua

2021

Laburpena

Gaur egun genero-berdintasuna ikasgeletara iritsi dela defendatzen da jendartean, eskola mistoak mutilen eta nesken berdintasuna bermatu duela justifikatuz. Aldiz, generoen arteko desberdintasunak duela hamarkada batzuetakoak baino ikusezinagoak bihurtu diren arren, gizarte sexista eta desorekatu bat mantentzen eta erreproduzitzen duen hezkuntza-eredua jarraitzen dugu izaten. Hurrengo orrialdeetan ideia honen zergatia aztertuko da, bukaerako fokua irakasleen kontzientzia eta formazioaren garrantzian jarriz, kalitatezko hezkuntza hezkidetzaila transmititzeaz arduratzen diren eragile nagusiak irakasleak direla kontuan hartuta. Era berean, metodo desberdinen bitartez ikastetxe eta irakasle desberdinen egoera aztertuko da eta ideia guztiak bilduta, unibertsitate garaian irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleek jaso beharko luketen formazio baten proposamena plazaratuko da.

Hitz gakoak: hezkidetzeta, formazioa, irakaslea, feminismoa.

Abstract

Today it is publicly defended that gender equality has reached classrooms, justifying that mixed school guarantees equality between men and women. However, although gender inequalities have become more invisible than they were decades ago, we still have an educational model that maintains and reproduces a sexist and unbalanced society. In the following pages we will analyze the reason for this idea, putting the final focus on the importance of teacher awareness and training, taking into account that the main agents in charge of transmitting a quality coeducational education are teachers. Likewise, through different methods, the situation of different centers and teachers will be analyzed and, gathering all the ideas, a proposal will be launched for the formation that students who are preparing to become teachers in the university period should receive.

Key words: coeducation, formation, teacher, feminism.

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Sistema patriarkalaren historia	5
2.2. Sistema patriarkala gaur egun	8
2.3. Kontzeptuak argitzen	13
2.4. Eskolaren papera: hezkidetzaz	17
3. HELBURUAK	25
4. METODOLOGIA	25
4.1. Partaideak	25
4.2. Tresnak	26
5. EMAITZAK	27
5.1. Galdetegiko emaitzen interpretazioa	27
5.2. Elkarrizketen analisia eta interpretazioa	29
5.3. Behaketa bidezko interpretazioa	33
6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENA	36
7. BIBLIOGRAFIA	41
8. ERANSKINAK	46

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Jarraian aurkezten den lana Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean Lehen Hezkuntzako Graduan burutu beharreko Gradu Amaierako Lanari (GrAL) dagokio. Lan honetan hezkidetzaren arloa izango dugu aztergai, hezkidetzaren erroak nondik datozen aztertuz, honek daukan garrantzia justifikatuz eta era berean, gizartean, eskolan eta irakaslegoan daukan ikusezintasuna analizatuz. Izan ere, askorentzako genero-desberdintasunak desagertu egin dira; eta azken hamarkadetan aurrerapen handiak egon direla egia bada ere, genero-desberdintasunak eraldatu besterik ez dira egin. Gaur egun mobilizazio soziala areagotu den arren, gizartean ezjakintasuna da nagusi eta horren aurrean erantzun politikoa ematea eta kontzientzien eraldaketan eskua sartzea beharrezkoa da.

Arazo sozial honi irtenbide bat emateko, instituzio eta erakunde desberdinek eskoletan jarri dute begirada, errazagoa baita kontzientzia garbiak heztea kontzientzia garatuak aldaraztea baino. Modu honetan, berdintasunaren aldeko ahaleginak legegintza-esparru desberdinetan islatu dira; hala nola, Euskadi mailan Hezkidetzeta-Plana sortu da, non berdintasunaren aldeko eta indarkeriarik gabeko eskola eredua planteatzen den, genero-aurreiritziak eta estereotipoak, botere-harremanak edo sexu-identitateen aniztasuna bezalako gaiak jorratuz (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Aitzitik, hezkuntza-sistemako legegintza-esparruetan hezkidetzaren aldeko proposamenak egiteagatik ziurtzat jo da irakaslego osoaren ideologia aldatu dela (Carretero eta Nolasco, 2017). Errealitatea, aldiz, utopia horretatik urrun dago eta irakasle askoren intentzio hezitzaileetan printzipio feministak at geratzen dira. Irakasle kritikoak eratzearen ardura honen parte unibertsitatean ematen den formakuntzaren gain dago. Hainbat ikerketek adierazten duten bezala, genero perspektiba goi mailako ikasketetatik kanpo jarraitzen du egoten gaur egun. Ayuste-k eta beste (2016) egindako bilaketa batek esaten digu Lehen Hezkuntzako Gradua eskaintzen duten Espainiako 44 unibertsitate desberdinetatik, horietako 11tan baino ez direla sartzen genero-berdintasunari buruzko eduki argia duten ikasgaiak, hauek orokorki hautazkoak direlarik. Nik, pertsonalki baieztatu dezaket Euskal Herriko Unibertsitatean jaso dudana irakasle izateko formazioan ez dudala generoarekin zerikusirik duen inolako ikasgairik jaso.

Honek daukan larritasuna salatzeke asmoz egin da lan hau, gaiaren azterketa teoriko sakon bat eginez lehenengo, eta praktikotasunean egoera nola dagoen analizatuz ondoren. Horretarako, Hezkidetzeta-Plana martxan dagoen eskola bat eta martxan ez dagoen beste bat bisitatu ditut, irakasle desberdinei galdeketa egin diet eta kurtso

honetako praktikaldian bizitako esperientziaren analisia egin dut. Azkenik, informazio guzti hau oinarri hartuta, unibertsitatean jaso beharko genukeen formazioaren proposamena egin dut.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Sistema patriarkalaren historia

Sistema patriarkala edo patriarkatua izenez ezagunagoa den kontzeptuak gizonen nagusitasunean oinarritutako kulturari egiten dio erreferentzia. Gerda Lernerren hitzetan, gizonak emakumeen eta haurren gainean duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa¹ litzakete patriarkatua, oro har gizartera ere zabaltzen dena (Lerner, 1990). Beste interpretazio kritiko batzuek honela definitzen dute: gizonak emakumeen gain duten nagusitasunaren sistema edo antolaketa soziala, historian zehar forma desberdinak hartu izan dituen (Emakunde, d.g.). Emakundeak zabalduen azalpenaren arabera, patriarkatu hitzak Grezia eta Erroma garaiko legedietan du jatorria. Garai hartako sistema patriarkalean, etxe bakoitzean botere legal eta ekonomiko osoa zuen familia-buru bat zegoen: aita. Gizonezko figura honek botere absolutua zuen familiako gainerako kide guztien gainean. Hala ere, erantzukizunak ez ziren familiartean era berean banatzen ezta denbora berdinez mantentzen ere. Semeek zuten erantzukizun edo boterea alabek zutena baina handiagoa zen, eta aitarekiko mendekotasuna aldi baterakoa zen; aldiz, emazte eta alaben mendekotasuna bizitza osorakoa.

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ez ziren, ordea, Erroma eta Grezia garaian jaio; genero-rolak gizakia sedentario bihurtu zenetik daramatzagu arrastaka (Cañete, 2017). Gizona familiarentzako etxebizitza eta janaria bilatzeaz arduratzen zen bitartean, emakumearen zeregina erreproduzitzea eta erreproduzitutakoa zaintzera mugatzen zen. Emakumeak biologikoki gaitasun fisiologiko hau edukitze hutsak, izatez, ez zuen emakumearen gutxiagotasuna suposatzen; hau da, bizia sortzeko aukera den bertute batek ez du gizaki baten deuseztapena justifikatzen (Cañete, 2017). Aldiz, Sherry B. Ortnerrek (1974) emakumea eta naturaren artean, bai eta gizakia eta gizonaren artean egiten duen konparazio metaforikoaren bitartez, sistema patriarkala

¹ Instituzionalizazioak ideia eta jokaera patriarkalak arau bihurtzea esan nahi du, honen legitimazioa ekarriz; izan ere, lege eta antolaketa ekonomiko, sozial eta abarren existentziak berak mendekotasun hori normalizatzen du, eta beraz, munduko emakume zein gizonak, menderatze maskulino horretatik jaiotzen diren arau, balio eta ohitura sozialetan hezitzen dira, hauen onarpena eraginez (Franco, 2015 eta Ferreiro, 2017).

desberdintasun fisiologiko honetaz nola aprobetxatu den azaltzen digu. Izan ere, ugalketarako ahalmenak berdintsuak bihurtzen ditu emakumea eta natura. Naturak bizia sortzen duenean bera arduratzen da hura salbu mantentzeaz, babesteaz eta zaintzeaz. Gizakia ez da naturaren arazoetat jabetzen, eta honen zainketaz arduragabetzea gutxi balitz, naturak eskaintzen dituen material eta elikagai desberdinetaz baliatzen da behar desberdinak asetzeko. Modu honetan, naturari gizakiaren beharretara moldatzea besterik ez zaio geratzen. Bestetik, gizakiak natura zaintzeko daukan “gaitasun eza” aitzakitza hartuta, behartuta dago bere buruaren zainketaren arduradun bakarra izatera.

Emakumearen eginkizuna, gizonak zainketarako zeukan “ezgaitasun” eta arduragabekeriaren aurrean, haurrak zaintzera mugatu zen. Gauzak horrela, bizitzeko oinarrizko elementuak lortzeko (elikagaiak edo etxebizitza) gizonaren menpe eta zerbitzura egotera pasatu zen. Hainbat autorek uste dutenez, kontzeptu metaforiko hauen zeharkako elkartzeko horretan hasten da gaur egunera arte jarraitzen duen sistema patriarkal eta matxistak (Cañete, 2017).

Aitzitik, zaila da gizarte-antolamendu patriarkalaren hasierako une historikoa zehaztea, eta horregatik, antropologia feministak beste ikuspuntu bat defendatzen du. Honen arabera (Lerner, 1990 eta Lagarde, 2011), sistema patriarkalaren eragilea emakumearen merkantilizazioa izan zen, hau da, emakumea taldeetako gizonen arteko trukerako merkantzia gisa tratatzea. Izan ere, emakumeen ugalketa- eta sexu-ahalmenez aprobetxatzearen ohitura jabetza pribatuaren aurretikoa da.

Dena den, paleolito eta neolito garaian komunitatea antolatzeko eta biziraupena bermatzeko era horrek denboran zehar iraun zuen, lehen zibilizazio eta gizarteetatik hurrengo gizarte modernoagoetara. Azken finean, sistema patriarkala gizonaren nagusitasunean oinarritutako kultura bezala definitu daiteke; eta kultura, zentzu antropologikotik aztertuta, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren jokabide, balore, ideia eta arauen multzoa da, elementu materialak (eraikinak, dirua, eskolak, janzkera etb.) zein sinbolikoak (sinesmenak, erlijioa, portaera-ereduak etb.) barne hartzen dituenak. Beraz, kultura patriarkala historian zehar eraikitzen joan den elementuen multzaketa da, garai bakoitzeko interes politiko, sozial eta zientifikoetara moldatzen joan dena, gizateriak igaro dituen gizarte-antolamenduko erak definituz (Franco, 2015).

Zentzu horretan, Aristotelesen filosofiatik datozen ideia misoginoak gaur egunera arte iristen direla ikus dezakegu.

Aristotelesek mundua sailkatzeko sistema dikotomiko baten ikuspegia zabaldu zuen, zein mundua kontrako pareen bidez definitzen zen: gizona – emakumea, aita – ama, burua – gorputza, zuria – beltza, arrazoia – sentimenduak, zientzia – jakintza tradizionala, publikoa – pribatua, heterosexuala – homosexuala, bilakaera – iraultza. Errealitatea definitzeko modu horrek kategoria bat desiragarri, dominante eta goragoko postuan kokatu zuen, eta horrenbestez, gutxiagotasun-, anormaltasun- edo dominatu-maila dikotomiaren beste pareari egokitu zitzaion. (...) Ildo horretan, kapitalismoak eta patriarkatuak erantzukizun handia izan dute gizarte-ordena hori eta pentsamendu dikotomikoaren sistemaren unibertsalizazioak eragindako desberdintasun sozial horiek eratzeko orduan. (Franco, 2015, 11. or.)

Pentsamendu aristotelikoak, beraz, gizonaren menpe zegoen ideal femeninoa zabaldu zuen, eta pentsamendu matxista hori mendebalde osora hedatu zen. Platon izan zen emakumearen berdintasuna eta emakumea bizitza publikoan parte hartzea babestu zuen filosofo bakarra, arrakasta handirik gabe. Izan ere, bere pentsamendua eklipsatuta geratu zen, korrante misoginoen artean bakarra baitzen. Beraz, Aristotelesen garaitik XVIII. mende bukaerararte, emakumeei gizartearen rol otzana esleitu zitzaie, Erdi Aro baxuan sortutako “Maitasun Cortes” korrontearekin bat egiten zuten maitearen ideal moral eta fisikoak, maitatuaren aurrean portatzeko ereduak eta portaerak markatzen zituen (Cañete, 2017).

Lola Ferreirok (2017) *emakume-arkeotipoaren* kontzeptua azaltzen du, Erdi Aroan emakumeek zuten rol otzan eta ahula ulertzeko baliagarria zaiguna:

Errealitate patriarkalaren dimentsio guztiek, bereziki erlijiosoak, garai hartako balio- eta arau-sistema eraikitzen zuten, kultura bereko kide guztiengan inkontzienteki eragina zuena. Inkontziente kolektiboa deritzonaren kontzeptua pertsona taldeen irudi-multzoek (arketipoak) osatzen zuten. Emakume-arketipoak, haren burua miresteko eta sexu-plazerrarekiko edozein loturatik kanpo uzten zuen. Irudi hori politikaren, legediaren, antolaketa-estiloen, gizarte-komunikabideen, publizitatearen, literaturaren, antzerkiaren eta hizkuntzaren laguntzarekin zabaltzen zen, eta modu horretan, emakumeak bere gain hartu zuen gizonarekiko zuen gutxiagotasuna. Emakumea ez zen eskubideak zituen subjektu bezala ikusten, “bestearen” pribilegioen objektu baizik.

Laburtuz, garai hartako emakumearen arketipoak desiorik gabeko gizakia irudikatzen zuen, bereziki sexuala (afektiboa ere bai). Horrek sexu-plazerretik eta maitatua eta baloratua sentitzearen asebetetzetik bereizten zuen, eta gizona balioestea eta asetzea bihurtu zen emakume ideala izateko eta gizartean onartua izateko modu legitimo bakarra” (Ferreiro, 2017, 142-143. or.)

Patriarkatuak garai hartako eta gaur egunerarte iraun duten bizitzeko eta pentsatzeko moduetan zituen inplikazioak ulertzeko, emakumearen arketipoa eratzten lagundu zuten errefortzu kulturalak aztertuko ditugu: erlijioa eta filosofia (Alberdi eta Matas, 2002).

Erljioa

Erljio monoteista guztiek jainkoaren irudi berbera konpartitzen dute: gizon ahalguztidunaren irudia. Emakumea, horren bitartean, gaitzari, bekatuari eta infernuari lotutako subjektu bezala ikusten da. Juduek eta kristauak konpartitzen dituzten erlijio testu sakratuetan, gizona eta emakumea gero eta gehiago bereizten dituen doktrina bat lantzen da, femeninoa den guztia gutxiestu eta emakumea arrisku eta bekatu-abaguneen eramaile gisa irudikatzen duena. Gizonen eta emakumeen erlijio-nortasunari buruzko ideia sexuatu horiek gizartera estrapolatu ziren, Erdi Aroan erlijioak izan zuen hedapen inposatuarekin. Gaur egun ideia hauek bizirik jarraitzen dute mantentzen, erakunde, erritu eta sinbolo desberdinen bitartez.

Ezkontza, esaterako, eliza katolikoaren doktrina misoginoak azaltzen duen erritual esanguratsuenetakoa da. "Emaztea ematen dizut, esklabua ez dena" esaten dio apaizak gizonari ezkontzeko momentuan. Erritual honetan esklabotza aipatze hutsak mendekotasunaren irudia dakar, nahiz eta esplizituki honen zorrotasuna arintzen saiatu. Emazteak esklaboa izan behar ez duela esateak, aldi berean, bi mezu inplizitu ezkututzen ditu: beharrezkoa dela esklabotzaren ukazioa, ezkongai askok hala pentsatu dezaketelako; eta emakumeari emazte izatetik geratzen zaion hurbileneko egoera esklabotzarena dela. Hau eta eman zitezkeen mila adibide gehiagorengatik, ezkontza kristauaren erritualean erabiltzen den eremu semantikoak agerian uzten du senarraren autoritatea eta emakumearen mendekotasuna.

Honek gehiegikeria bat ematen duen arren, gaur egun gure gizarteko belaunaldi zaharretan eta familia tradizionaletan islatzen den gertakaria da. Emakume askoren

askatasuna etxeko eremu pribatura mugatzen da, gizonaren nahiak asetzeko betebeharrarekin.

Bestalde, testu liturgikoek sexuen hierarkia markatzeko milaka aukera eskaintzen dituzte. Adibidez, fideltasunari dagokionez, ia ez dago gizonak emakumea errespetatzeko edo emaztearekiko leialtasuna gordetzeko gomendiorik; betebeharrak, ordea, etengabe gogorarazten zaie emakumeei, bai ezkontza-mezetan, bai ondorengo erritu eta mezetan. Fideltasun sexuala beti izan da betebeharra emakumeentzat, baina ez ordea gizonentzat. Aipatu beharrik ez dago herrialde musulmanetan, gaur egun oraindik ere, gizonek bost emazte izateko daukaten pribilegioaz eta emakumeek jaso dezaketenen heriotza zigorraz, gizonarekiko morrontza eta fideltasuna ukatuz gero.

Gizonaren ikuspegi emakumezale boteretsuaren irudiak gaur arte iraun du gizarte guztietan. Kultura batzuetan emakumearen ahalduntzea indartzen eta zabaltzen hasi den arren, mutil askorekin ibiltzen den neska oso gaizki ikusia jarraitzen du izaten, bere burua maitatuko ez balu eta gizon guztiengan onespina bilatuko balu bezala. Aldiz, emakumez emakume doan gizonak pertsona boteretsu eta seguruaren irudia zabaltzen du, eta hala ikusten dugu kultura patriarkal honen biktima garen guztiok.

Sexualitatearekin lotuta, erlijioak dauka emakumeen “birjintasuna” sakratua bihurtzearen erantzukizun osoa. Katolizismoan adibidez, Ama Birjina dugu horren sinbolo nagusi. Beste hainbat kulturetan ablazioa bezalako erritu esajeratuak jarraitzen dira praktikatzeko, emakumeen plazerra deuseztatzeko helburuz.

Filosofia

Filosofiak ere estereotipo patriarkalak transmititu izan ditu, bizitzaren zentzuari buruzko ikusmolde desberdinen aldarrikapenaren bitartez. Aurretik aipatu dugu Aristotelesen filosofia misoginoa zela, eta ildo horretan jarraitu zuten ondoren iritsi ziren Rousseau eta bestelako pentsalari haundiek.

XVII. mendean, ilustrazio garaian alegia, idazle eta filosofo ilustratuak arrazoimena defendatzen zuten mundu hobea eraikitzeko. Pentsamendu honen arabera, gizona bere ezagutzei esker hazteko libre da; ez du beste inoren pentsamenduaren menpe egon behar eta bere erabakien jabe da. Gizon hitza azpimarratzen dut, diskurtso ilustratua, neurri handi batean korrante baztertzaile eta misoginoa besterik ez zelako. Pentsamendu ilustratuarentzat gizakia aske da berez, eta kasu egin behar dio bere

pentsamenduari, beste inorengana makurtu gabe, bere boterea edozein dela ere. Baina hau gizonarentzako bakarrik da baliozkoa, eta horrela defendatzen zuten autore anitzek.

Era berean, Iraultza Frantseseko askatasun- eta berdintasun-idealak gizonei baino ez zitzaien aplikatu. Ideal horiek, hasiera batean, emakumeen parte-hartzea ere ulertzen zuten, baina determinismoa, ekonomizismoa eta arrazoia (gizonena) gailendu ziren gertaeren garapenean. Beraz, emakumeek Errenazimenduan, Frantziako Iraultzan eta iraultza sozialistetan protagonismo pixka bat lortu zuten arren, gizonen mendekotasunaren menpeko ahalduntze faltsu bat izan zen. Benetako feminismoaren sorrera sufragisten eskutik etorri zen (Gamba, 2008).

2.2. Sistema patriarkala gaur egun

Errealitate hau aspaldiko garaietako antolamendu soziala dela iruditzen zaigu baina azken hamarkadetan soilik eman dira emakumearen askatasunarekiko aurrerapauso gehienak. Gaur egun emakumeen zeregina etxea eta familia zaintzea dela pentsatzea ideia zaharkitua iruditzen zaigu, eta orokorki, gaindituta dagoen arazoa dela uste dugu. Ohitura zaharkitu horiek nolabaitean atzean gelditu dira eta beste gizarte formatu batera pasatu gara. Izan ere, aurreko mendeetako lehen mugimendu feministei esker, egun emakumeok eskolara, mendira edo tabernara joateko, lan egiteko, bozkatzeko eta erabakiak hartzeko eskubidea eta askatasuna daukagu. Egiatzatuta geratu da emakumeak gizonaren pentsamendu logiko berdina daukala, eta emakumearen irudi irrazionala, orokorki, atzean utzi dugu.

Beraz, gaur egun sexu-genero arazoak gaindituta daudela defendatzen dute hiritar askok. Haatik, ondoan daukagun edozein emakumek kontatu dezake gizon batengandik edo batzuegandik jaso duen diskriminazio-, jazarpen- edo indarkeria egoera bat. Emakume guztiok daukagu kontatzeko beldurra sentitu dugun pasarteren bat. Zer esanik ez dago emakumeok bete behar ditugun edertasun kanon eta mantendu behar dugun jarrera formalaz, edota espazio publikoko hainbat esparrutan lekua lortzeko egin behar dugun ahaleginaz (beste espazio askotan ikusezinak jarraitzen dugu izaten).

Egia da legedia aldatu dela eta gure herrialdean emakumeenganako diskriminazioa formalki debekatuta dagoela, baina hau ameskeria hutsa besterik ez da. Amelia Valcárcel-ek (2011) "berdintasunaren ameskeria" kontzeptuaz hitz egiten du konferentzia batean. Bere hitzetan:

Berdintasunaren ameskeria baldintza politiko eta globala da, non emakumeek eta gizonek bi sexuak berdinak direla uste duten. Ez sexuak identikoak izatearen zentzuan, baizik eta aukera berberak izatearen zentzuan. Eta horregatik, egungo egoera "bidezkoa" da. Baina hau argiztapen arrazionalista baten emaitza besterik ez da. Hau da, iraganean sexu batek besteak baino botere askoz handiagoa zuen baina gaur egun mundu guztiak daki sexuak berdinak direla, eta horren emaitza espazio publikoaren eta boterearen banaketa da. Banaketa horri berdintasuna deitzen zaio. (2011)

Formalki botere eta espazioaren banaketa eman den arren, gizonek historian zehar izan dituzten pribilegioak indartsu mantentzen dira gaur egun; izan ere, soldata-arrakala ez da leku askotan oraindik desagertu, emakumeek lanpostu prekarioenak betetzen dituzte eta ordezkariak txikiagoa dute zuzendaritza politiko, enpresarial, kultural eta zientifikoko espazioetan. Ez dezagun hitz egin musika edota kirol munduan emakumeak daukan protagonismo txikiaz. Bestalde, etxeko lanetaz, haurren zaintzaz eta mendeko pertsonetaz arduratzen diren pertsonak emakumezkoak dira gaur egun ere. Zainketa lanak ikusezinak eta mespretxatuak izan dira historia osoan zehar, sistema patriarkal batean bizitzeaz gain sistema kapitalista batean ere bizi garelako. Gizarte kapitalista honetan lana enpleguarekin lotzen da, eta lan-merkatura ateratzea eta gure ahaleginaren truke soldata bat jasotzea besterik ez da kontuan hartzen. Zainketa lanak dirurik ekoizten ez duenez, lanpostua ez dago merkatuan eta, beraz, ez da existitzen. Horregatik, emakumearen lanaren errekonozimendua ez da lehentasun politiko ez sozialen barruan sartzen (Pérez, 2020).

Baina esan bezala, gaur egungo egoera ez da Erdi Aro garaikoarekin konparatzekoa eta emakumeak independentzia ekonomikoa izateko askatasun eta eskubidea lortu zuenetik, haren zeregina garbiketa eta zainketa lanetatik "askeago" gelditu da, edo gutxienez, bizitza esklabizatu horretatik pixka bat aldendu da. Hala ere, gaur egun emakumeak esklabuak ez izateak ez du esan nahi emakumeak libre bihurtu garenik, patriarkatuak menderatuak nahi eta behar gaituelako.

Horretarako historian zehar emakume-eredu desberdinak asmatu ditu eta eredu horiei jarraitzeko nahia ezarri digu (Varela, 2014). Aurretik aipatu bezala, elizak botere ideologiko osoa zuenean, Ama Birjina inposatu ziguten (abnegazio, sakrifizio eta entrega guztia). Kapitalismoak boterea hartu zuenean, etxeko emakume perfektua inposatu ziguten, sukaldean, garbitzen edo lisatzen gozatzen zuena. Gaur egun aldiz, edertasunaren mitoa txertatu dute, kontrol sozialaren funtzioa betetzen duena, aurreko

mende eta urteetan erlijio edo emakume domestikoarekin lortu zuten bezala. Naomi Wolf (1992) edertasunaren mitoaren inguruan hausnartu duen autore aipagarrienetakoa da. Bere ustetan, mito hau feminismoaren aurkako kontraeraso bortitz bat da, emakumeen aurrerapenaren aurkako arma politiko modernoa.

Gaur egun emakumeak daukan kartzela ikusezina da, hain ikusezina non emakumeak berak ere ez duen ikusten. Gizartean onartuak izateko, baina batez ere, gizonen onarpena lortzeko beharrezkoa den edertasuna bilatzera mugatu da emakumeen existentzia. Irantzu Varela (2014) aktibistak honi buruz ematen duen iritzian zera esaten du: “Edertasunaren mitoa hiru gezurretan oinarritzen da. Lehena, edertasun unibertsal eta objektiboa existitzen dela. Bigarrena, emakumeok hau bilatzeko derrigortasuna daukagula. Eta hirugarrena, gizonek edertasun hori lortu duten emakumeak bakarrik bilatzen dituztela (...) Patriarkatuak emakumeak gutxietsita sentitzeko metodo desberdinak erabili izan ditu denboran zehar. Lehen putak ginen ezkontzen ez ginenean, sorginak gehiegi genekienean, eta orain lodiak eta itsusiak bihurtu gara izurtzen ez garenean” (Varela, 2014). Beraz, itxura fisikoa patriarkatuaren arma boteretsua bihurtu da, ezarritako kanon horiek betetzen ez diren bitartean mehatxatuak sentiarazteko (lortzeko ia ezinezkoak direnak, bide batez esanda), eta hala, emakumeen gorputzen gaineko kontrola gizonena izaten jarraitzeko. Esan beharra dago kanon horien barruan egonda ere, emakumeon gorputza beti izan eta izango dela epaitzeko elementu desiragarri. Gorputza ez ezik, emakumeon janzkera, hizkera, sozializatzeko era, lan egiteko edo gidatzeko modua eta luzerako doan zerrenda bat atera zitekeen egunerokotasunean egiten ditugun ekintza guztiak epaiketa-elementu direla erakusteko.

Emakumeoi ez gaituzte libre eta lasai bizitzen uzten. Ez soilik kalean – edo kasu okerrenetan, etxean – jasan behar ditugun jazarpen, eraso, apalkuntza, irain edo begirada zikinengatik. Baita gure gorputzaren gain jasaten dugun zapalkuntzagatik ere, eta izaera konkretu bat izateko hezten gaituzten moduagatik. Baina batzuentzat emakumea guztiz libre da eta bi sexuen berdintasuna gainditutako arazoa da. Gizonentzako batez ere, baina baita emakume askorentzako ere. Zergatik daude, ordea, sistema patriarkal hau kuestionatzen ez duten emakumeak?

Bada, hain barneratuak ditugu gizonaren eta emakumearen irudi eta jarrera estereotipatuak, bizitzaren egoera naturala iruditzen zaigula. “Indartsuenak, handienak, aktiboenak edo ausartenak enpresan, alderdi politikoan, asanblean, kalean, kantxan edo ohean agintariak izatea normala iruditzen zaigu. Erosoa delako beste batzuek gidatzea, erabakiak hartzea, autonomia ekonomikoaren erantzukizuna hartzea, bonbillak

aldatzea, ekimena hartzea edo bozeramaileak izatea. "Emakume ona" izatea lortu duzunean, hau da, diskretua, atsegina, pazientea, gozoa, argala eta depilatua, agian ez duzu patriarkatuari zor zaion obedientziaren pisua nabaritu" (Varela, 2015).

Azken 100 urteetan borroka feministak orain begi bistakoak iruditzen zaizkigun eskubideak bereganatu ditu: botoa emateko eskubidea edo hezkuntza. Hala ere, gaur egungo sistema patriarkalean badaude hain agerikoak ez diren beste zapalkuntza batzuk, emakumearen askatasuna eta bi generoen berdintasuna bermatzeko funtsezkoak direnak: gure bizitza eta gorputzen jabe izateko eskubidea.

2.3. Kontzeptuak argitzen

Sistema patriarkalak gizonen ideietatik abiatuta hainbat erakunde erabiltzen ditu – komunikabideak, legedia, hezkuntza...– funtsean gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman bereiziaz elikatzen den kultura bat ezartzeko eta gizarte-sistamarako eta giza garapenerako "egoki" gisa definitutako gizarte-ordena bat mantentzeko. Gizonen ideietatik abiatutako sistema bat dela esaten dugunean, sistema androzentrikoari buruz gaude hizketan, ikuspegi maskulinoa ardatz duen sistema alegia.

- Androzentrismoa: Hitzaren irakurketa literala eginez, "gizonarengan zentratzea" esan nahi du, hau da, gizona giza portaera ororen patroia, eredia eta araua izatea. Mundu androzentriko batean pertsona oro genero maskulinokoa da, kontrakoa adierazi ezean. Ondorioz, "gizona" eta "gizakia" termino sinonimoak dira, eta baita "maskulinoa" eta "unibertsala" ere (Bengoechea, 2005).

Gizonarengandik eta gizonarentzako pentsatua (ez egina) dagoen mundu honetan agerian gelditzen da emakume eta gizonen arteko desberdinekeria, edo beste hitz batzuetan, genero-desberdintasuna. Genero bakoitzak dituen pribilegio eta desabantailak analizatzeko, genero kontzeptua zer den aztertu behar dugu lehenago.

- Generoa: Konstrukzio sozial bat da, non kolektibo bati ezaugarri edo estereotipo batzuk esleitzen zaizkion, jokabide- eta identitate-ereduei lotua. Gaur egun pentsaera anitzak dauden arren, orokorki bi genero bereizten dira: neska eta mutila.

Ez dugu, ordea, generoa sexuarekin nahastu behar. Sexu kontzeptua ulertzea eta generoarekiko daukan ezberdintasuna ezagutzea garrantzitsua izango zaigu hurrengo ideia batzuetan sakontzeko.

- Sexua: Ezaugarri biologikoen multzoa, bereziki, ugaltze-aparatuarekin zerikusia duena. Izan ere, jaiotzean gure itxura fisikoaren arabera identitate sexuala jasotzen dugu. Hau da, aluarekin jaiotzen den pertsona emakumea izango da eta zakilarekin jaiotzen dena gizona izango da.

Nahiz eta bi kontzeptu hauek gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunekin erlazionatu, genero eta sexu kontzeptuek konnotazio desberdinak dituzte. Sexuak gizakion desberdintasun eta ezaugarri biologiko, anatomiko eta fisiologikoei egiten die erreferentzia, eta gizon edo emakume gisa definitzen gaitu; ezaugarri horiekin jaiotzen gara, eta unibertsalak dira, hau da, gizarte eta kultura guztientzat dira komunak. Aldiz, kultura eta une historiko bakoitzean desberdintasun sexualean oinarrituta eraikitzen diren ideia, sinesmen eta jokabide sozialen multzoa da generoa (Lamas, 1968).

Sistema patriarkalaren arabera, pertsona baten sexuak eta generoak bat egin behar dute gizartean integratuta egoteko. Sexua (biologikoa) generoarekin (kulturala) derrigorrez lotuta joan behar izatearen egiteari sexu-genero sistema deritzo (Ugarte, Otaduy eta Irigoyen, d.g). Beraz, ume bat aluarekin jaiotzen denean emakume identitatea ematen zaio automatikoki. Ume horrengandik emakumeekin edo neskekin bat datozen gizarte-portaerak espero dira eta sexu horrentzako “egokiak” diren betebeharrak, onarpen, debeku eta itxaropenekin betetzea espero da. Beste hitz batzuetan, genero-estereotipoak jarraitzea espero da. Emakunderen hiztegiaren arabera, genero-estereotipo kontzeptuaren definizioa hurrengoa da:

- Genero-estereotipoa: Emakumeen eta gizonen ustezko ezaugarri eta atributuen multzoa, haien portaera bereziak azaltzeko erabiltzen dena; besteak beste, gizarteak genero bakoitzari esleitutako rolen arabera batzuek eta besteek izan beharreko jokamoldea, bizitzaren esparru guztietan bete beharreko zeregina eta emakumeek eta gizonek elkarrekin izan beharreko harremanak (Emakunde, 2020).

Emakumeekin edo gizonekin lotzen diren genero-estereotipo ohikoenak honako taula honetan aurki ditzakegu:

1. Taula

Genero-estereotipoak Broverman, Vogel, Clarkson eta Rosenkrants-en (1972) eskutik:

EMAKUMEA	GIZONA
Ez da batere oldarkorra Lehiakortasuna ez zaio gustatzen Mendekotasuna du Subjektiboa Emotiboa Otzana Etxera bideratua Ez abenturazalea Negozioetan abilezia gutxikoa Lider izateko gaitasun eza Bere buruarekiko konfiantza gutxikoa Negar egiteko maiztasuna Oso hiztuna Atsegina eta bizimodu garbikoa Pinpirina	Oldarkorra Lehiakorra Independentea Objektiboa Emoziorik gabekoa Nagusia Aktiboa eta abenturazalea Abila negoziotan Lider izateko erraztasuna Konfiantza handia du bere buruarengan Ez du inoiz negar egiten Gutxi hitz egiten du Abitu zikinekoa

Beraz, “sexu-genero sistemak gizateria bi talde handitan sailkatzen du: maskulinoak eta femeninoak, printzipioz aurkakoak, izaeraren, portaeraren, itxura fisikoaren, bizitzaren aurreko jarreraren, xedeen eta sentitzeko moduen arabera bereizitak” (Herrera, 2017). Gainera, sistema honek funtziona dezan bi talde hauek arau heteronormatiboak jarraituz harreman behar dira: mutilak neskekin eta neskek mutilekin. Beatriz Gimeno heteronormatibitateari buruzko definizio osatuagoa eskaintzen digu:

- **Heteronormatibitatea:** Botere harreman multzoa da; horren bidez gure gizartean sexualtasuna normaldu eta arautu da, eta harreman heterosexual idealizatuak instituzionalizatu dira. Alegia, **heterosexualitatea** (sexu/genero desberdineko pertsonenganako erakarpen sexuala sentitzea) sexualtasun “normal”, natural eta onartu bakarria izatea inposatu duen gizarte eta kultura erregimena da heteronormatibitatea. (Gimeno, 2017).

Beraz, laburki errepikatzen dugu sexu-genero sistemaren arabera bi giza multzo daudela: aludunak, estereotipo femeninoak jarraitu behar dituztenak eta gizona maitatu behar dutenak; eta zakildunak, estereotipo maskulinoak jarraitu behar dituztenak eta emakumea maitatu behar dutenak. Ikuspegi feministatik hitz eginda, sexu-generoaren kontzeptua artifiziala da, “gizonezko oso maskulinoen eta emakumezko oso femeninoen artean askotariko nortasun sorta zabala dagoelako, genero identitate patriarkalak

oinarrrian dituen bi arketipo zurrinak baino askoz aberatsagoa” (Herrera, 2017). Sexu-genero sistema heteronormatiboa ez da erreal, alde batetik, emakume maskulinoak eta gizon femeninoak ere badaudelako; eta bestetik, zakildun emakumeak, aludun gizonak, emakumeak gustuko dituzten emakumeak eta gizonak gustuko dituzten gizonak existitzen direlako. Hau da, pertsona transgenero, intersexual eta homosexual edo bisexualak gure errealitatearen parte direlako. Jarraian, kontzeptu hauen definizio zehatza aztertuko dugu:

- Transgeneroa²: Jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion kontrako generoarekin identifikatzen den pertsona.
- Intersexuala: Kromosoma, gonada edo sexu-organoaren alterazioaren ondorioz sexu-garapen ohikoa izan ez duen pertsona. Adibidez, obarioak eta zakila dituen pertsona.
- Homosexuala: Neskenganako erakarpen sexuala duen neska (lesbiana) edo gizonenganako erakarpena duen gizona (gay).
- Bisexuala: Bi sexu/generoetako pertsonenganako erakarpen sexuala duen pertsona.

Beraz, sexuak eta generoak bat egin behar duten eta emakumeak eta gizonak elkarrekin egon behar duten eredu honek baztertu egiten ditu kategoria zisgenero eta heterosexual horietan sartzen ez diren pertsonak. Baina baita kategoria horien barruan dauden eta haien generoari esleitutako estereotipoetatik at jarduten duten pertsonen ere.

Sistema patriarkala sexu-genero sistemaz baliatu da, honek ezartzen dituen arauen araberako zapalkuntza egiten duelako. Badakigu berez sistema patriarkalak gizonen nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa bultzatzen duela. Haatik, sistema patriarkalarentzako gizon batzuk bakarrik dira “benetako gizon”. Gizon zakildun, maskulino eta heterosexualak hain zuzen ere. Beraz, patriarkatuaren arabera gizonaren eredu onargarri bakarra dago, eta bertatik at gelditzen diren gizonak (homosexualak, femeninoak...) emakumearen beheragoko maila edo postuan gelditzen dira. Ideia honi gizontasun edo maskulinitate hegemoniko deitzen zaio:

² Kontrako kontzeptuari zisgenero esaten zaio. Jaiotzean eman zaion generoarekin identifikatzen den pertsona, alegia. Pertsona zisgeneroak sexu-genero sistemaren eskemen barruan sartzen dira, honen arabera, sexuak eta generoak bat egiten dutelako.

- Maskulinitate hegemonikoa: Gizon izateko eredu soziala, oro har gizartean gailentzen diren gizon izateko moduen nagusitasuna eta emakumeen menderakuntza bermatzen duena, patriarkatua legitimatuz (Emakunde, 2020).

Gizontasun hegemonikoak gizarteko antolamendu patriarkala funtsatu du, eta bertan emakumeek duten mendekotasuna zuritu. Gizontasun hegemonikoa arau bihurtu da, erreproduzitzen laguntzen duten prozesu formal eta informalak gidatuta (Riviere, 2017). Gizon hegemonikoaren gailentasun eta botereari eusteko indarkeria adierazpen desberdinak erabiltzen ditu sistema patriarkalak. Ageriko eta muturreko indarkeria bortxaketak, hilketak, jazarpenak etb. (indarkeria sexual, psikologiko eta fisikoa) dira, baina badago gure artean oso zabalduta dagoen beste indarkeria bat, zeharkako moduan jasotzen duguna: indarkeria sinbolikoa (indarkeriaren adierazpen ez-fisikoa). Honen bidez, subjektu menderatzaileek haien mundu ikuskera, gizarte-rolak, estatusa, kategoria kognitiboak eta boterearen eta buru-egituren irudikapen agerikoak ezartzen dizkiete mendeko subjektuei ezkutuko modu sistematiko baten barruan, hau da, herritarren gehiengoa indarkeria horretaz ez ohartzeko moduan (Emakunde, 2020).

Indarkeria sinbolikoaz kontziente izateko, hau erreproduzitzen ez dugula ziurtatzeko eta sistema patriarkalaren konplize ez garela bermatzeko, genero-analisia edo ikuspegia ezinbestekoa da. Genero ikuspegia pertsonak genero-identitate-estereotipatuetatik kanpo hezteko, botere-harremanekin bukatzeko, emakumeok jasaten ditugun zapalkuntza eta desabantailetatik ohartzeko, gizontasun hegemonikoarekin apurtzeko, maitasun erromantikoaren mitoa deseraikitzeke, sexu-genero sistemari aurre egiteko eta emakumeak ahalduntzeko beharrezkoa da.

2.4. Eskolaren papera: hezkidetza

Simone de Beauvoirren (1981) hitz famatuei jarraiki, ez gara emakume jaiotzen, emakume izatera iristen gara. Norbanako bat jaiotzen den momentutik sozializazio-prozesu batean murgiltzen da, non testuinguru soziokulturalean baliozkotzat jotzen diren balio eta jokabideak barneratzen dituen, sozializazio-eragileek (familiak, eskolak, komunikabideak etb.) erreproduzitura. Testuinguru soziokultural hierarkizatu batean gaudela kontuan hartuta, norbanakoak ikasitako balio eta portaerek egitura zapaltzaileetan antolatutako sistema bat sostengatzen dute. Sistema androzentrista eta hegemonikoari buruz gaude hizketan, eta horri maskulinitatearen eta feminitatearen jokabide, ezaugarri eta balioak lotzen zaizkio. Beraz, jaiotzean hasitako eta bizitza osoan garatzen doan sozializazio-prozesu horretan, emakume edo gizon gisa eraikitzen gaituzten genero-arau eta rolak bereganatzen eta normalizatzen ditugu. Ildo horretan,

gizon batek maskulinoa izan behar duela ikasten du eta emakume batek femeninoa izan behar duela barneratzen du. Maskulinitate eta feminitatea mandatu zurrun batzuek definitzen dute, eta hauen arabera, feminitate hori maskulinitate horren pribilegioen zerbitzura jartzen da (Martínez eta Ramírez, 2017).

Hurtzarotan sozializazio-prozesua gehien bat familia giroan ematen den arren, badago umearen hezkuntza formal eta informala asko baldintzatzen duen beste faktore bat: **eskola**.

Eskola hezkuntza-erakunde gisa ulertuta, lehenik eta behin hezkuntza zer den eta historikoki zer erabilera izan duen analizatu beharra dugu. Euskaltzaindiak hezkuntza terminoa definitzeko erabiltzen dituen hitzak hurrengoak dira: "gizakia, bere ahalmenak garatuz eta gizabidea erakutsiz, gizartean bizitzen ikasteko eta gaitzeko erabiltzen diren bide edo sistemen multzoa". Beraz, hezkuntza sozializazio eta kontzientziazio kulturalaren prozesu bezala uler daiteke, eta helburua subjektuak gizarteratzea izango litzateke.

Eskola XIX. mendean estatu-nazioen eraketaren testuinguruan sortu zen, herritarrei tokian tokiko kultura nagusia inposatzeko bitarteko gisa. Beste hitz batzuetan esanda, eskolaren hasierako helburua herritarrak doktrinatzeko eta kontrolatzeko zen, momentuko botere politikoen zilegitasuna eta haien ideia nazionalista eta patriarkalak zalantzan jartzen ez zirela ziurtatzeko moduan.

Gaur egun gizarte-antolamendua oso aldatuta dago eta eskolak berdintasunaren diskurtsoan oinarritutako helburu hezitzaileago batzuk ditu. Alde batetik, umearen prestakuntza kognitibo eta akademikoa bilatzen da; bestetik, hiritar eredugarria izateko beharrezko balio, jarrera eta arauen transmisioa ematen da. Haatik, eskolak tokian tokiko kultura-sistema erreproduzitzen jarraitzen du, eta gaur egun oraindik gizarte patriarkal eta kapitalista batean bizi garela kontuan hartuta, patriarkatuaren eta kapitalismoaren ideia eta balioak transmititzen dituela azpimarratu beharra dugu.

Graciela Morgadek (2017) baieztatzen duenez eta berak aztertutako hainbat ikerketek adierazi dutenez, eskolak sexu-genero sisteman oinarritutako ideia eta esangura hegemonikoak erreproduzitzeko joera dauka: gizon militar eta politikoen ospakizunean zentratutako historia, gizonek soilik kontsokratutako eta idatzitako lanak onartzen dituen literatura kanona, neskentzako eta mutilentzako eduki bereiztuak transmititzen dituen Gorputz Hezkuntza edo bitartekotza kritikorik gabe irakatsitako hizkuntza sexista.

Bestetik, “agerian geratu da eskola-jardueretan gizontasun hegemonikotik kanpo gelditzen diren pertsonen ikusezintasuna edo estereotipazioa nagusitzeaz gain, sexuaren (kanpokoa) eta bizitzeko modu kulturalen hornidura biofisikoaren arteko ohiko kointzidentziara egokitzen ez diren identitate-forma guztiak zitalkeriaz kondenatzeko joera nagusitzen dela” (Morgade, 2017, 51. or.).

Egoera honen aurrean eskolan planteamendu kritikoak behar dira, maskulinitatearekin eta kultura hegemonikoarekin identifikatu ez diren emakume eta gizonak onartuak sentitzeko, identitate guztiak maila berean baliozkoak izateko eta diskriminazio instituzionala desagertzeko moduan.

Eskola genero-mugetatik aske izateko eta askatasunean eta onarpenean oinarritutako identitate edo nortasunak eraikitzeko, hezkidetza beharrezkoa da. Hezkidetza-eskolaren maisu handi batek, Maria José Urruzolak, honela definitu zuen hezkidetza: «neska-mutilak genero femeninoa edo maskulinoa alde batera utzita hezten dituen, hots, sexu-desberdintasunetik abiatuta hezten dituen, beren banakotasunaren garapena bultzatuta, baina gizarte sexista batetik sexu batekoa edo bestekoa izateagatik betetzeko eskatzen zaizkien rola kontuan izan gabe» (2006).

Hezkidetza feminismoaren alaba dela esaten da maiz. Izan ere, feminismoak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bilatzen du, gizarte androzentriko eta hegemonikoaren aurrean emakumeen eskubide, estatus eta askatasunaren alde eginez. Beste hitz batzuetan esanda, feminismoak sistema patriarkala salatzea eta deseraikitzea du helburu eta horretarako emakumearen ahalduntzearengatik egiten du borroka. Hezkidetza feminismoaren bide beretik doa baina hezkuntza munduan jartzen du fokua, inguru hezitzaileetan diskriminazio egoerak identifikatuz eta berdintasunean eta askatasunean oinarritutako hezkuntza bat bilatuz. Esan dezakegu, beraz, **eskola hezkidetzaille bat aurrera eramateko irakasle feministak beharrezkoak direla.**

Euskal Herriko eskoletan hezkidetzarako premia dagoela ikusita, Eusko Jaurlaritzak EAE-ko hezkuntza-sistamarako hezkidetza-planak sortu ditu. Bi argitaratu dira gaur arte, baina bigarrena lehenengoaren bertsio eguneratu eta hobetua dela kontuan hartuz, bigarren honetan oinarrituko gara eskaintzen dituen edukiak aztertzeke. Plan honek zortzi zutabetan bereizten du hezkidetza eta honako infografia honetan laburbiltzen dira:

1. Irudia

Hezkidetzaren Planaren zutabeen izenburuak Eusko Jaurlaritzak (2019) diseinatua



1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean → Irakasleak genero-analisia egiteko prestakuntza behar du, diskriminazio egoerak eta jokaera sexista estereotipatuak identifikatu eta saihestu ahal izateko, eta are garrantzitsuagoa, heldua umeentzako eredu dela kontziente izanik, egiten duen guztia genero-ikuspegiaren filtrotik pasatzeko. Modu berean, curriculumeko edukiak kritikoki aztertzeko eta beharrezkoa izan ez gero horiek aldatzeko gaitasuna izan behar du, bai eta jolas tradizionalak birpentsatzeko eta umeen garapenean eragiteko praktika hezkidetzailleak bilatzeko grina eduki. Irakasleak generoaren lanketaren aldeko jarrera aktiboa erakutsi behar du, egoera edo estimulu batzuk nahita eraginez eta umeen parte-hartzea bilatuz.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista → Hizkuntzak gure mundu-ikuskerara islatzen du, eta, bereziki, errealitatea eraikitzen laguntzen du. Hau da, errealitatea, gauzak eta pertsonak deskribatzeko erabiltzen ditugun terminoek, esaldiek eta hizkuntzak horien interpretazio-egitura antolatzen dute (Bengoechea, 2005, 4. orr.). Hizkuntza neutrala ez den heinean, kolektibo bakar bati egiten dio mesede: gizonezkoei. Hizkuntzen artean desberdintasunak daudela badakigu eta batzuk besteak baino zama sexista handiagoa dutela ere argi dago. Espainolez plural guztiak maskulino diren bitartean, euskaraz neutralak dira esaterako. Honi sexismo

linguistikoa deitzen zaio, Amaia Alvarez-ek azaldu bezala. Hala ere, euskarak genero gramatikalik izan ez arren, hizkuntzaren erabilera automatikoki sexista bihurtzen da testuinguru sozial sexista batean bizi baldin bagara. Honi, aldiz, sexismo soziala deitzen zaio, Alvarez-en hitzei jarraiki. Horrek esan nahi du sexismo soziala berdina dela hizkuntza guztietan, genero-desberdintasunetan oinarritutako kultura mundu osoko arazoa delako eta pentsamolde patriarkala munduko hiztun guztien garunean dagoelako.

Sexismo sozialean agertzen zaizkigu emakumearen presentzia urria edo gutxietsia, emakumeen ekintzen pasibitatea eta esklusibitatea, emakumeen kontrako bortizkeria, ikuspegi dualaren morrontza (zuri/beltz, eder/zatar, aberats/pobre...) eta emakumeen ikusezintasuna, besteak beste. Hori da aldatzen zailena, gure bizitzan zehar ikasi ditugun sinbolo eta irudikapenak okertzat jo eta zerotik balio eta jarrera berriak sortu behar ditugulako, eta hori une oro egin beharreko lana da. (Alvarez, 2007, 33. orr.)

Beste alde batetik, irudiek ere imajinario kolektiboa eraikitzen laguntzen dute. Hala, irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea beharrezkoa da, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.

3. Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa → Emakumeek gizakiaren historian zehar alor guztietan egindako ekarpenen ikusezintasunaren aurrean (testuliburuetan, pelikuletan...), hauek egin dituzten lorpenak bisibilizatzeko eta emakumeak ere historiaren parte direla gogoratzeko inplikazio aktiboa izatea beharrezkoa da.
4. Gatazken eraldaketa baketsua → Errespetuan eta berdintasunezko harremanetan oinarritutako elkarbizitzak espazio hezkidetzaille baten oinarria izan behar du. Horretarako pertsonen arteko zainketa landu behar da.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa → Etxeko espazioan arreta jarritz, etxebizitza eremuetan erreproduzitzen diren jokaera eta lan banaketa desparekatuak aztertzea, zainketaren etika eta emakumeek eta gizonek dituzten zereginak analizatuz eta horren aurrean jarrera kritikoa landuz, etorkizunean emakumeak etxeko karga guztia hartu ez dezaten eta gizonak lan horretan inplikatu daitezten. Bestetik, independentzia ekonomikoak independentzia pertsonala ekartzen duela erakutsi, inoren menpe ez egoteko eta pertsona independente eta askeak eratzeko.

6. Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak →

Ikastetxeko espazioak ez dira neutroak, batez ere, fokua jolastokian jartzen badugu. Peio Arín eta Maria Teresa Vizcarrak (2019) azpimarratu bezala, jolastokiko espazioaren egituraketak nesken eta mutilen arteko hierarkizazioa elikatzen du eta botere-harremanen inguruko mezuak helarazten dizkie bertan aritzen diren partaide guztiei. Izan ere, egungo eskoletako jolastokietako espazioak orokorki maskulinoak diren jarduerak egitera bideratuta egoten dira. Hala, zati handiena futbol zelai edo kirol kantzek betetzen dute, horiek zentralitate guztia hartzen dute eta gainerako txokoak baztertuta geratzen dira (Arín eta Vizcarra, 2019). Garay eta kideak (2017) aztertu bezala, jolas- orduan neskak rol pasiboetan sozializatzen dira, ez oldarkorretan, talde txikietan eta oso egituratuta ez dauden arauetan. Bien bitartean, mutilak rol aktiboetan, oldarkorretan, talde handiekin eta arau zorrotzekin jokatzeko dute. Beraz, mutilek erdiko espazioa hartzen dute eta neskak ertzetan gelditzen dira.

Honegatik, hierarkizazio hau apurtuko duten eta espazioaren banaketa orekatua eraikiko duten praktika hezkidetzailleak martxan jartzea beharrezkoa da. Azken urteotan hainbat proiektu planteatu izan dira Euskal Herriko hainbat ikastetxetan. Haien artean, famatua bihurtu den “baloirik gabeko egunak”, Elkartoki proiektua (TIPI gara, 2018) edota jolastokia ingurune naturalez osatzea (Garay eta beste, 2017; Arín eta Vizcarra, 2019).

7. Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala → Sexualitatearen inguruko ezagutzak transmititu, sexuarekiko jarrera baikor eta arduratsua zabaltzeko. Berdintasunean, osasunean, gozamenean eta pertsona guztiekiko eta gizatasunak berezkoa duen aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza sexuala eskaini.8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea → Ikasleen sentsibilizazioa bilatzea, matxismo eta indarkeria egoerak hautemateko tresnak ematea eta indarkeria kasuen aurrean zuzeneko esku-hartzea burutzea.

Eusko Jaurlaritzak sortu duen hezkidetzeta-plan honetan behin eta berriz errepikatzen da eduki eta ideia guztiak aurrera eraman ahal izateko irakasleok dugun erantzukizuna. Zehazki, hezkidetzako eskolaren bidean aurrera egiteko oinarritzko elementuen barruan hurrengoak aipatzen da:

Hezkidetzan prestatutako irakasleak. Honako hau funtsezko elementuetako bat da hezkidetzako eskola abian jartzeko. Beharrezkoa da irakasleek prestakuntza

jasotzea; prestakuntza etengabea ez ezik, hasierako prestakuntza ere bai, berdintasunean eta berdintasuneranzko hezkuntza zeharka txertatu duena. Irakasleek desparekotasunekiko sentiberatasuna izan behar dute, horiek nola sortu eta errepikatzen diren kontzientzia hartu behar dute. Halako irakasleek abian jartzeko tresna gehiago izango dituzte, halako prestakuntza jaso ez duten irakasleek baino. (Eusko Jaurlaritza, 2019, 34.orr.).

Datu batzuen arabera, irakasle gizonen %35ak eta emakumezkoen %25ak ez du eskola inguruan diskriminazio- edo desberdintasun-praktikarik antzematen (Aristizabal eta beste, 2018). Rocío Anguitak baieztatzen duenez, hezkuntza-arloko profesionalen artean dagoen formakuntza hezkidetzaillearen eskaria oso baxua da, eta horren arrazoi nagusia genero-arazoaren ikusezintasun orokorra da. Beraz, "formakuntzaren bidez bakarrik hautsi daitekeen gorpil zoro bat da: ez dago prestakuntzarik, ez baitago prestakuntza-eskaerarik, hura gabe arazoa ikusezina delako, eta, oro har, neska-mutilen arteko berdintasuna ikasgeletara iritsi dela uste da" (Anguita, 2011, 49. or.).

Orokorrean gizarte apolitiko eta ezjakin batean bizitzearen ondorioa da hau. Genero-arazoak ez dira ikusezinak, ikusi nahi ez dituenak bakarrik dauka injustizia honetaz arduragabetzeko pribilegioa. Ostera, pertsona apolitikoek hartzen dituzten erabaki eta egiten dituzten akzio denak politikoak dira. Feminismotik datorren "pertsonala dena politikoa da" kontsignak ulertarazten digu egunerokotasuneko egintza desberdinak – jateko era, daramagun janzkera, zerbitzariarekiko daukagun jarrera, maitatzeko modua edo familia-hertsapenak – erabaki politikoak direla eta, beraz, "gizarte-eraldaketaren aldeko borrokaren parte izan daitezkeela eta izan behar dutela, askatasunaren mesedetan eta norberaren eta besteen bizi-horizonteak irekitzearen mesedetan" (Parrondo, 2009).

Azkenik, honekin lotura daukan eta hezkidetzaz haratago doan proposamen pedagogikoari aipamena egin beharra zaio: pedagogia feminista. Izan ere, hezkidetzaren kontzeptua gehiegi normalizatu da eta bere garaian berrikuntza handia izan zen arren, gaur egun oso entzuna geratu da, eskolako proiektuen artean erakargarritasuna galduz (Álvarez-Uria, Vizcarra eta Lasarte, 2019). Pedagogia feministaz hitz egiten dugunean kontzeptu erradikalago batetaz hitz egiten dugu, emakumeentzako eta gizonentzako aukera berdinak sortzea baino premia sakonagoak bilatzen dituenak.

Pedagogia feministaren kutsua ulertzeko feminismoa termino zabaletan ulertu behar da. Aurretik esan bezala, feminismoak emakumeen borrokaren inguruan lan egiten badu ere, humanismoaren kritika gisa ere uler daiteke eta, ikuspegi horretatik, feminismoak gai sozialak aztertu eta alternatibak proposatzen ditu, filosofia, etika eta pentsamendu zientifikoa baita. Munduaren eta bizitzaren ikuskera izateaz gain, feminismoak genero-harremanen aldaketa sozial, politiko, kultural eta epistemologikora bideratutako jarduera, esperientzia eta ekimenei egiten die erreferentzia; hau da, mugimendu sozial eta politiko bat ere bada, askatasunari, ekitateari, demokraziari, giza eskubideei eta autonomiari buruzko kultura eta praktika bat eraikitzea bilatzen duena (Maceira, 2006).

Hau ulertuta, pedagogia feministak pertsona kritikoak eratzea bilatzen du, tokian tokiko herritar aktiboak eraikiz; hau da, giza eskubideak, gizarte-erantzukizuna eta ekitatea oinarri izanik, bizimoduen desberdintasunaz jabetzeko eta ekintza demokratikoetan parte hartzearen beharra sustatzeko hezkuntza bultzatuz, gizarteko eremu politiko, sozial eta ekonomikoetan eragina izan dezaten (Argibay eta Celorio, 2005).

Pedagogiarekin lotutako feminismoa desberdintasunen transmisio eta erreprodukzioa gelditzea baino hezkuntza-proiektu globalagoa da. Horren ordez, hezkuntza askatasun-sentimenduaren prestakuntza praktikoa gisa ulertzen da, hau da, hezkuntza autonomiarako eta ahaldunderako prestakuntza gisa ulertzearekin lotzen da (Martínez, 2016). Maceirak hurrengo definizioa eskaintzen digu: "Bi ideia nagusiren inguruko praktika eta diskurtsoen multzoa da: gizonen boterearen eta menderatzearen aurrean jarrera kritikoa izatea, eta emakumeak emantzipatzen dituen eta emakumeak indartzea bilatzen duen orientazioa, gizarte askeago eta demokratikoago bat eraikitzeko." (2006, 31. orr.).

Atal honekin amaitzeko eta honen garrantzia azpimarratuz, irakasleen prestakuntza edo formazioa herritarrak eraldatzeko eta pedagogia feminista jarraitzeko funtsezko eta oinarrizko tresna dela errepikatu nahiko nuke. Girouxek pedagogia kritikotik generoari buruz egiten duen hausnarketan hurrengo argudiatzen du:

Irakasleek mundua era desberdin batean irakurtzeko testuinguru dialogikoak sortu behar dituzte, ikasleek haien esperientziak zapalkuntza-harremanen testuinguruan ulertzeko eta horiek gainditzeko moduak eskaintzeko, abusuaren eta pribilegioaren erresistentziari aurka eginez. (...) Halaber, gizarte-desberdintasunak – genero-desberdintasunak, besteak beste – aztertzeko aukerak eskaini behar dituzte, ikasleek egoera desberdinak ulertzeko, zalantzan jartzeko eta hauek eraldatzeko. (Giroux, 1999, 173-180. or.)

3. HELBURUAK

Lehenik eta behin, marko teorikoan generoaren problematika aurkeztu nahi da, historiako lehen garaietatik hasita gaur eguneko egoera aztertuz eta hezkuntza munduarekin lotura eginez, eskolak genero-desberdintasunak nola eta zenbat erreproduzitzen dituen ulertzeko eta irakasleok joera hau aldatzeko dugun erantzukizuna azpimarratzeko.

Bigarren helburua, Eusko Jaurlaritzak diseinatutako Hezkidetza Plana martxan dagoen eskola batekin eta Hezkidetza Plana martxan ez dagoen beste batekin harremanetan jartzea; eta ikastetxeetako arduradunekin elkarrizketa bidez ateratako konklusioekin konparaketa bat egitea da. Gainera, hezkuntza munduko irakasle desberdinek gai honekiko duten inplikazioa aztertuko da, galdetegi bidez.

Azkenik, marko teorikoko informazioa oinarri, elkarrizketa eta galdetegietako testigantzak, zein praktikan bizitako esperientzia eskura izanda, Lehen Hezkuntzako Graduako ikasleei zuzendutako proposamen bat aurkeztuko dut.

4. METODOLOGIA

4.1. Partaideak

Lan hau aurrera eramateko bi eskolekin jarri naiz harremanetan: Gasteizko Zabalhana eta Samaniego eskola publikoak. Lehen ikastetxean zentroko hezkidetza arduradunarekin elkarrizketa egiteko aukera izan nuen, eta bigarrean, hezkidetza-plana martxan ez dagoela eta horrenbestez, hezkidetza arduradunik ez dagoela kontuan hartuta, eskolako zuzendariarekin hitz egin nuen.

Bestalde, galdetegia bete duten irakasleen lagina oso heterogeneoa da, bai ikastetxe publiko eta bai kontzertatuko profesionalak baitaude, adin tarteak oso aldakorak dira eta emakume zein gizonek bete dute galdetegia. Guztira 26 pertsona izan dira parte hartzaileak. Hauek G1, G2, (...) eta G26 kodeen arabera izenpetuko ditugu. Eskolen artean, Iruñeako San Fermin ikastola, Gasteizko Armentia ikastola, Toki Eder, Odon de Apraiz, Errekabarri, Samaniego, Zabalhana, Arantzabela, eta Barrutia eskolak sartu dira. Galdetegi-banaketari dagokionez, zentro bakoitzeko pertsona bati galdetegia egiteko *link*-a luzatu zaio eta pertsona horrek eskolako beste irakasle batzuei pasatu die. Beraz, ez dago guztiz argi zenbat pertsonari iritsi zaion esteka.

Behaketa Umandi eskolako LH 1. mailako tutore bati eta gela horretako 20 umeri egin zaio. Beraz, gela oso bat behatu da.

4.2. Tresnak

Bi metodo desberdin erabili dira lan hau burutzeko: metodo kuantitatiboa (galdetegia) zein kualitatiboa (behaketa eta elkarrizketa). Beraz, hiru tresna sortu ditugu, ikastetxeetako arduradunei egindako **elkarrizketa**, irakasleei egindako **galdetegia** eta praktikan egindako **behaketa** eta ateratako ondorioak.

Ikerketa kualitatiboak errealitatearen izaera sakona identifikatu nahi du eta azterlanaren subjektuekin "komunikatzeko" joera dago. Hau da, komunikazioa horizontalagoa da ikertzailearen eta ikertutakoen artean; beraz, naturaltasun eta trebetasun handiagoa dago faktore sozialak egoera natural batean aztertzeko. Gainera, informazioaren azterketa prozesura dago orientatuta. Aldiz, metodo kuantitatiboan ikertzailearen presentziarik ez dago eta ikertutakoen emaitzetaz baliatzera mugatzen da. Horregatik, informazioaren azterketa ez da prozesuan zentratzen baizik eta bukaerako emaitzetan (Pita eta Pertegas, 2002).

Galdetegia erakargarriagoa eta emaitza kopuru handiagoa lortze aldera, nahiko inkesta motza sortu nuen, azkar betetzeko eta ikertzaileak ez nekatzeko taktika modura. *Google Forms* plataformaren bitartez egin nuen eta hamar galderek osatzen dute (ikusi 1. eranskina).

Elkarrizketari dagokionez, galderak aurrez aldetik prestatuta eraman nituen (ikusi 2. eranskina), nahiz eta zuzeneko hizketaldiak momentuko beharretara moldatzeko eta galdera berriak eratzeko aukera eman zidan. Elkarrizketaren bidez ateratako informazioa galdetegian lortutakoa baino askoz aberatsagoa da, hitz eginez informazio gehiago denbora gutxiagoan eta esfortzu txikiagoarekin lortzen delako. Gainera, ulertu gabeko edozein kontu argitzeko edo edozein gaietan sakontzeko aukera ere eskaintzen du. Hala ere, informazioa oso subjektiboa da eta espazio jakin bateko errealitatera hurbiltzeko aukera besterik ez du eskaintzen, ikerketa oso mugatua izanik.

Bukatzeke, behaketari dagokionez hainbat puntutan jarri da fokua, praktikaldian ibilitako epearen barruan. Lehenik, ikasleen jarrera, joera eta elkarrizketak ikasgela barruan; bigarrenik, jolas orduan umeei hautatzen dituzten lagunak eta jolasak; azkenik, irakasleak gaiarekiko duen inplikazioa (egiten duen lanketa, erakusten duen iritzi eta eskuhartze kritikoa...).

5. EMAITZAK

5.1. Galdetegiko emaitzen analisia eta interpretazioa

Galdetegia bete dutenen %62a emakumeak izan dira eta gainontzeko %28a gizonezkoak. Adinen tartean, parte-hartzea nahiko orekatua izan da nahiz eta 31-40 urte bitartekoak gailentzen diren, 9 erantzunekin. Beste muturrean 60 urtetik gorakoak dauzkagu, 2 erantzunekin.

Lehenik eta behin, haien **bizi-esperientzian generoaren inguruko formakuntzarik jaso duten** galdetzean, %65ak baietz erantzun du eta %35ak ezezkoa eman du. Hala ere, gehiengoak jakintza nahikorik ez daukala esan du eta soilik lau pertsonak baieztatu dute **gaiaren inguruko beharrezko prestakuntza** dutela. Erantzun honek agerian uzten du irakaslegoaren artean dagoen informazio falta izugarria dela eta generoaren gaia lantzeko baliabide nahikorik ez dagoela.

Hurrengo galderari dagokionez, **genero kontzeptua definitzeko** eskatzen da. Jaso diren erantzunetatik, guztiek femenino/maskulino eta emakume/gizon sailkapenean oinarritutako definizio motza eman dute, hau da, sistema binarioan oinarritu dira eta sexuaren arabera bereizketa egin dute. Aldiz, 9 pertsonak ez dute galdera erantzun eta nik horrekin interpretatutakoaren arabera, irakasle hauek ez dakite generoa zer den edo ez dute hau azaltzeko gaitasun nahikorik.

Eskolan genero-desberdintasunak ikusten dituzten galdetzean, %73ak baietz erantzun du, %15ak ezezkoa eman du eta gainontzeko portzentaiak honi buruz inoiz hausnartu ez duela adierazi du. Era berean, 21 pertsonak **hezkuntza gizarte sexista honen konplize dela** uste du, eta gainontzeko bostak ideia honen kontrako aldean jarri dira. Eraitza hau nahiko positibotzat hartu dut, erdiak baino gehiagok eskolan genero-desberdintasunak edo genero-arazoak daudela onartzea lehen pausua delako egoera hau aldatzen hasteko. Hala ere, egia da hitzez ekintzez baino errazago posizionatzen garela eta horrekin konformatu behar ez garela.

Irakasleak izanik, haien eguneroko **jarrera, ideia eta ohiturekin transmititzen dutena umeen generoaren garapenean eragiten duela konturatzen diren** galdetzean, denek horretaz kontziente direla erantzun dute. Beraz, honek erakusten digu behintzat, gure jokoaren gaineko kontzientzia minimoa zabaldua dagoela irakaslegoaren artean. Hala ere, ez dut uste askok generoaren ikuspegitik hitz egin dutenik eta aurreko erantzunak ikusita, modu orokorrean pentsatutako erantzuna izan dela ondorioztatzen dut. Esaterako, kontziente gara hiritar arduratsu batek semaforoa gorritz pasa behar ez duela

eta horregatik, ume bat ondoan daukagunean gelditu egiten gara umeari eredu egoki bat emateko. Askok antzeko modu batean ulertu dutela eta galdera honen erantzun positiboa horri zor zaiola iruditzen zait.

Bestalde, **ikasgelan generoaren gaia jorrazteko egin duten lanketaren** emaitza aztertuz, ia erdiak lanketarik egin ez duela adierazi du (11 pertsona). Besteen erantzunen artean, deskribatu dituztenen artean laburpen bat eginez, honako hauek dira: bideo, ipuin eta pelikulen bitartez; tutoretza orduetan solasaldien bidez; patioetan, eskolako proiektua jarraituz; materialak eta edukiak sortzerako orduan emakumea eta generoaren ikuspuntua sartuz (esaterako, *txanelan* gorputza lantzen denean gizonek zakila dutela eta emakumeek alua dutela ikasterako orduan, beste opzio batzuk ere badaudela azaltzea); eta azaroak 25 eta martxoak 8ko egunetan jarduera bereziak eginez.

Genero-estereotipoak momentu oro erreproduzitzen dira. Hauek umeen genero-identitatea indartzen dute eta horregatik, genero-arauak apurtzea apustu politiko handia dela iruditzen zait. **Genero-arauak apurtzeko ahaleginak egiten dituzten** galdetzean, 5 pertsonak soilik eman dute baiezko absolutua. Horien artean, G7 pertsonaren erantzun hau azpimarratu nahiko nuke:

Bai. Emakumea naiz eta emakumearen jarrera edo irudiarekin "bat ez datozen" gauzak egiten ditut. Esaterako, aspaldi hartu nuen erabakia depilazioa alde batera uztea eta bularretakoa ez eramatea. Umeen artean kritikak jasotzen ditut baina modu batez kritika horiek positiboki baloratzen ditut haien eskema mentalak apurtzen ditudalako eta gizartean beste aukera batzuk daudela erakusten ari naizelako. Gainera, umeen janzkerak eta aukeratzen dituzten koloreak, jolasak etab. kolokan jartzen ditut eta hartzen dituzten erabakien atzean hausnarketa bat egotea saiatzen naiz

Gainontzekoen artean, erantzun anbiguoak eta ezezkoak egon dira. G19ren erantzuna da anbiguotasun hori argi azaltzen duenetako bat:

Genero-arauak apurtzearen alde nago baina oso zaila egiten zait ni ere genero-estereotipo hoiekin hazi eta hezi izan nautelako eta askotan ez naizelako konturatzen hauek erreproduzitzen ditudala. Zerbait oso argi ikusten dudanean bai saiatzen naizela egoera aldatzen, adibidez, mutilak futbolearen ari direnean eta neskek familietara jolasten, guztientzako jolas alternatibo bat bilatzen dut.


Esan beharra dago askok ez dutela azalpen gehiegirik eman edota erantzun errazena bilatu dutela, "saiatzen naiz", "batzuetan bai" edo bestelako erantzunak emanez. Beraz, hauek analizatzeko aukera gutxi izan dut, informazio falta dela eta.

Azken galderari dagokionez, **1etik 10era gaiarekiko duten inplikazioaren inguruko balorazio bat** egitean, 10 pertsonak sei edo gutxiagoko puntuazioa eman diote bere buruari, eta gainontzeko 16 pertsonak zazpi edo altuagoko puntuazioa (ikusi 1. grafikoa).

Emaizta hauekin aurretik egindako hausnarketa egiten dut: hitzen bidez oso erraza dela zerbaitekin inplikaturata gaudela erakustea, baina ekintzen bidez gauza asko gelditzen direla adierazteko. Gainera, gaur egungo hezkuntza munduan irakasle guztiok egon beharko genuke gai honekin inplikaturata eta 10 pertsonen interes eza azaltzea kezkarria iruditzen zait.

1. Grafikoa

Generoaren gaiarekiko duten inplikazioa



5.2. Elkarrizketen analisisa eta interpretazioa

Lehenik eta behin, bi eskoletan oso errealitate desberdinak daudela argitu beharra dago. Biak publikoak dira baina Zabalganan egoera sozioekonomiko erdi-altuko ume euskaldunak bertaratzen diren bitartean, Samaniego egoera sozioekonomiko oso baxuko familia etorkinek osatzen dute. Bertatik hasita, eskola bakoitzak lehentasun eta helburu desberdinak ditu. Zabalganan hezkidetza eskolako proiektuen artean gailentzen den bitartean, Samaniegon hizkuntza eta errespetuzko bizikidetzari ematen zaio garrantzia, hezkidetza bigarren edo hirugarren planoan geldituz. Beraz, bi zentroetan egin ditudan elkarrizketak guztiz desberdinak izan dira, puntu komun batzuk egon diren arren.

Hasteko, Zabalganan hezkidetza arduraduna dago eta Samaniegon ez. Bigarren honetan gabezi honen zergatia galdetzean, behar berezirik ikusten ez zutela aipatu zidan zuzendariak. Zabalganan aldiz, hezkidetza-arduradunak erantzukizun garrantzitsuak ditu eskola barruan. Postu horretara nola iritsi zen galdetzean zera erantzun zidan: *“Duela lau ikasturte, familiek hezkidetza-taldea sortzea erabaki zuten. Hasi eta denbora gutxira, irakaslegoaren artean arduradun edo ordezkari bat edukitzea oso garrantzitsua zela konturatu ziren eta behar hau OOG-n (Ordezkaritza Organu*

Gorena) planteatu zuten. Ni momentu horretan OOG-n sartuta nengoen eta gai honetan beti inplikatu izan naizenez ardura hau hartzea erabaki nuen.” Nik, kuriositatez, postua hartzeko bereziki prestatuta zegoen galdetu nion, hau da, formakuntza bereziren bat baldin bazeukan. Erantzuna ezezkoa izan zen, baina ardura hori hartu eta segituan formatzen hasi zela aitortu zidan. “Berritzegunek hilabetean behin, bai Gasteizen eta bai Aiaraldean, bizikidetza eta hezkidetza mintegi bat antolatzen du. Bertara joaten hasi nintzen eta formakuntza jasotzeaz gain, Arabako beste eskola batzuetan egiten ari zirena ikusteko eta bertatik ideiak jasotzeko baliagarria izan zitzaidan. Urtebete beranduago, UPV/EHUk eskainitako ‘Hezkidetzan esku hartzen’ ikastaroa egin nuen”. Jarraian, formakuntza hori jasotzearen garrantzia azpimarratu zuen, gaiaren ikuspegi zabalagoa eman ziolako eta horri esker, aurretik kuestionatzen ez zituen gauza asko planteatu zituelako. Halaber, ikastaro eta formakuntza horiek erabaki propioz egin zituela argitu zidan, inor ez baitago zama hori hartzera behartuta. “Formakuntza-jardunaldietan parte hartzeko gonbidapena hezkidetza-arduradun guztiei zabaltzen zaie, baina bakoitzak aukeratzen du bertan izena eman edo ez. Ezagutzen ditut parte hartu ez duten zentro askotako irakasleak”.

Hurrengo galdera Eusko Jaurlaritzako Hezkidetza-Planera bideratu nuen, horrek nola funtzionatzen duen jakiteko asmoz. Haren esanetan, “*Eusko Jaurlaritzak Hezkidetza-Planean parte hartzeko deialdia zabaltzen du. Horretarako, izena eman nahi duen eskolak programazio edo plangintza bat sortu behar du, hurrengo ikasturtean betetzeko helburuz. Programazioa bi ikasturtetako izan behar da. Guk Eusko Jaurlaritzari bidaltzen diogu eta haiek onarpena ematen digute*”. Informazio honek buruan nituen eskema guztiak apurtu zituen, errekurtsio, material eta programazio guztia emanda zetorrela uste nuelako. Horregatik, Eusko Jaurlaritzatik baliabiderik jasotzen zuten galdetu nuen. Arduradunak azaldu bezala, “*lehen ikasturterako orduak ematen ditu, baina bigarreneko, aldiz, ez; eta hori tranpa hutsa da. Ez dago bat ere ondo planteatuta, bigarren ikasturtean lan-karga berdina delako eta esfortzu hori ez delako konpentsatzen*”. Bestalde, informazio gehigarria ere eman zidan, Araba mailan Hezkidetza-Planean parte hartzeko plaza mugatuak daudela esanez. Parte hartu nahi duten eskola guztiek haien proiektua bidaltzen dute eta Eusko Jaurlaritzak gehien gustatu zaizkionen artean aukeraketa egiten du, besteak kanpoan geldituz.

Hezkidetza-Planean sakonduz, honek zortzi zutabe ditu eta zutabe batzuk besteak baino erraztasun handiagoz lantzekoak dira. Horregatik, Zabalganako programazioak zutabe guztiak biltzen dituen jakin nahi izan nuen. “*Hezkidetza-Planerako sortutako programazioan hiru proiektu desberdinetan jarri zuen eskolak fokua, eta proiektu*

bakoitzean zutabe bat baino gehiago lantzen da, zeharkako moduan baldin bada ere. Alde batetik, tutoretza-plana, tutoretza orduetan genero-ikuspuntua txertatzeko helburuz; jolastokiaren eta jolas-orduaren lanketa eta berrantolaketa bestetik; eta azkenik, eduki kurrikularren analisia eta moldaketa, testuliburuetan, ipuinetan, entzumenetan etab. agertzen diren ereduak edo agertzen ez direnak aztertzeke eta genero-ikuspuntutik beharrezko moldaketak egiteko helburuz". Nik informazio horrekin egindako analisiaren arabera, lehenengo proiektuak edozein zutabe lantzeko askatasuna ematen du. Izan ere, tutoretza-planak hurrengoan datza: tutoretza orduetan generoa eta hezkidetzak lantzeko programazio bat egin, umeekin gaiarekiko lanketa zuzena egiteko. Beraz, hilabetero zutabe bat landu daiteke: indarkeria matxista, hezkuntza afektibo-sexuala, autonomia pertsonala, elkarbizitza baketsua... Bigarren proiektuari dagokionez, konkretuki seigarren zutabea lantzen da (espazioak ikastetxean). Eta azkenik, eduki kurrikularren analisiaren proiektuarekin pentsamendu kritikoa, hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista eta emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen sozial eta historikoaren zutabeak lantzen dira.

Eduki kurrikularrak analizatzearen proiektua bereziki interesgarria iruditu zitzaidan eta honen metodologia galdetu nahi izan nuen. *"Eskolako hezkidetzak mintegiak saio bat antolatu zuen eta zentroko irakasle guztiak bildu zituen. Bertan, irakasle bakoitzari bere kurtsoko testuliburu bat banatu zitzaion barruko edukiak analizatzeko helburuz. Horretarako estrategia batzuk azaldu ziren, formakuntza moduan. Saio horretako helburua irakasleek pixka bat prestatzea izan zen, gainontzeko material eta testuliburuarekin filtro berdina jartzeko eta curriculumak ze nolako mezuak zabaltzen dituen hausnartzeko".*

Nire iritzi propioz, proiektu hauek aurrera eramateko zentroko irakasle guztien inplikazioa beharrezkoa da eta irakasleek prestakuntza egokiarekin kontaktu behar dute. Horregatik, arduradunaren formakuntzaren esperientzia entzun ondoren, eskolako irakasleen egoera zein den jakin nahi izan nuen. *"Kanpotik etorritako elkarte desberdinen laguntzarekin formakuntza-saioak antolatzen dira ikasturtero. Derrigorrezkoak izaten dira eta zentro guztiko irakasleek joateko beharra dute".* Baina, guztiak al daude horrekin ados?. *"Gai honengatik tentsio asko sortu dira irakaslegoaren artean, askok honen beharra ikusten ez dutelako eta bakoitzak lehentasun desberdinak dituelako. Gainera, formakuntza-saioetan ere jarrera desagokiak ikusi dira. Adibidez, behin zera azaldu ziguten: «umeak tratatzerako orduan inkontzienteki generoaren araberako trataera ematen diegu». Irakasle batzuk haserretu egin ziren eta haiek ikasle guztiak berdin tratatzen dituztela defenditu zuten. Azken finean, haien profesionaltasuna kolokan eta*

minduta ikusi zuten. Eta jarrera horrekin erakutsi zuten bakarra, gaiarekiko duten kontzientzia gutxia eta axolagabetasuna da”.

Gatazkak alde batera utzita, irakasleek jasotako formakuntzak benetan baliagarriak ziren galdetu nuen, eta formakuntza horiek proiektu guztiak aurrera eramateko jakintza eta baliabideak eskaintzen zituen. *“Batuetan eskasak gelditzen direla iruditzen zait. Adibidez, pasaden kurtsoan trans kasu bat egon zen eskolan eta “Berdindu” elkartearekin kontaktatu genuen. Irakasleoi formakuntza bat eman ziguten eta protokoloaren berri izan genuen. Baina inoiz gertatu ez zaigun kasua dela kontuan hartuta, formakuntza jasota ere pixka bat galduta ikusi genuen gure burua eta umeekin lanketa zuzena egiteko profesionalen laguntza behar genuela sentitu genuen”.*

Bukatzeko, Zabalganako arduradunari egin nion azken galdera irakasleen gabezien inguruan izan zen. *“Irakasleengan baino, Hezkidetza-Planaren planteamenduan ikusten dut arazo gehiago. Irakasleak urtero aldatzen dira zentroz eta mugikortasun horrek eskolarekiko inplikazioa eragozten du. Orduan, kasualitatez Zabalganako azken bi kurtso hauetan egon baldin bazara, oso formatua egongo zara edo behintzat, informazioa jasotzeko aukera izan duzu. Baina beste eskola batetik iritsi berria den batek ez dauka Hezkidetza-Planarekin inplikatze prestakuntza nahikorik. Orduan, Eusko Jaurlaritzak beste modu batera planteatu beharko luke. Adibidez, eskola guztietan, ikasturte berdinean irakasleekin zutabe bat lantzeko plana egin eta hori aurrera eramateko baliabideak eskaini”.*

Samaniego eskolan jaso nuen informazioa ezin da orain arte kontatutakoarekin alderatu. Aipatu bezala, Samaniegon hezkidetza-plana ez dago martxan eta beraz, eskolan gai honekiko dagoen inplikazioa oso txikia da. Hezkidetza lantzeko proiekturik dagoen galdetean, zuzendariak programazio berezirik ez zeukatela esan zidan nahiz eta eskolan balore batzuk transmititzeaz arduratzen den eta horien artean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sartzen den. *“Noizbehinka emakumearen aldeko jardueraren bat proposatzen da eskolan. Esaterako, duela gutxi “Kolonbiako emakumeak” hitzaldia egin zen, eta ikasle batzuen familiarrak eskolara ekartzen eta haien esperientzia kontatzen eraman genuen aurrera. Urtero “Beldur barik!” lehiaketan parte hartzerako gonbidatzen ditugu ikasleak eta gelan lanketa txiki bat egiten da umeak animatzeko asmoz. Gainera, azaroak 25 eta martxoak 8 bezalako egunak errebindikatzen dira eta ikusgarritasun handia ematen zaio emakumeari egun konkretu horietan”.* Emakumeari egun hauetan bisibilizazioa ematea oso ondo dagoela uste dudana arren, hezkidetzaz hitz egiten dugunean ez dugu soilik emakumeaz hitz egiten.

Beste kolektibo batzuegatik ere borrokatu behar dela uste dut. Zuzendaria nire hitzekin ados zegoen arren, eskolan beste lehentasun batzuk dituztela errepikatu zidan, momentuz gai horrekin arazorik ikusi ez dutelako eta horrenbestez, hori lantzeko behar berezirik izan ez dutelako. Hala ere, *“horrek ez du esan nahi trans kasu bat agertzen baldin bada, lanketarik egingo ez denik”*. Azkenik, zentroko irakasleen formakuntzaz galdetu nuen. Zabalgan ez bezala, Samaniegon ez da irakasleei formaziorik emateko inolako jardunaldirik antolatzen.

5.3. Behaketa bidezko interpretazioa

Nire praktikaldietako ikasgelan 20 ume daude, horietatik 11 neskek eta 9 mutilak izanik. Adinez oso txikiak dira (6-7 urte) eta horregatik, baliteke askok haien genero-identitate edo nortasuna guztiz eratuta ez izatea. Momentuz, behatu nuenaren arabera, denak eredu zis-heteronormatiboan sartzen dira eta sozialki genero bakoitzari egokitzen zaizkien estereotipo eta jarrerak jarraitzen dituzte. Bereziki bi ikasleren kasuak azpimarratu nahi nituzke, neska bat (N1 deituko diogu) eta mutil bat (M1 deituko diogu). N1 eta M1-ek haien generoari egokitutako rola gainontzekoek baino sendago erakusten dituzte. N1 ume pinpirina da, neskekin soilik elkartzeko joera dauka eta aginduak emateko ohitura erakusten du. Egoera guztiak kontrolpean izatea gustatzen zaio eta askotan beste neskekiko konpetibitatea eta solidaritate eza adierazten du. Ikasgela barruan, gelako zereginekin oso arduratsua da eta irakaslearen onespenean etengabea bilatzen du. Bestetik, M1 mutil agresiboa da (lagunekin elkartzenean batez ere) eta futbol eta judo bezalako kirol lehiakorretan aritzeko grina erakusten du. Neskekin ez da oso ondo portatzen eta haiekin sartzeko joera dauka. Klasera igotzeko, patiora irteteko edo etxera bueltatzeko ilaran, beti jartzen da lehena. Gorputz Hezkuntzako klaseetan arazoak eduki ohi ditu, izaera errebeldeena erakusten baitu. Bi ume hauek familian ikusitako jarrera eta ereduengatik dituzte horrelako portaera eta izaerak, tutoreak luzatutako informazioaren arabera.

Gainontzeko ikasleen izaerak bereziki aipagarriak iruditzen ez zaizkidan arren, egon dira aipatu beharreko gertaera batzuk. Orden kronologiko bat jarraituta, lehena praktikak hasi eta egun gutxira gertatu zen. Mutil batek jantoki orduan gainean pixa egin zuen eta hortaz, begiraleek beste praka batzuk bilatu zituzten. Praka horiek biltegi batean gordeta zeuden eta aurreko urteetan norbaitek galdutakoak edo boluntarioki utzitakoak ziren. Hauek *leggings* formatukoak ziren, sozialki emakumeen janzkerarekin bat egiten dutenak. Arratsaldean klasea hasi zenean, ni gelara sartu orduko umea aulkian zurrin eserita ikusi nuen, eroso sentituko ez balitz bezala. Arratsaldeak aurrera egin zuen heinean, dantza bat irakatsi nahi izan zuten irakasleak eta horretarako denak zutitu behar

ziren. Ume hau atzealdean jarri zen eta ez zuen dantzarik egin. Ni ume honen egoeraz jabetuta, berarekin jarri nintzen babestuago sentiarazteko eta egoera normalizatzeko asmoz. Orduan, ikaskide baten ahotik *“neska ematen duzu”* atera zen eta ume guztiek bertan jarri zuten begirada. Irakasleak berehala eskua sartu zuen eta egoera desbideratu zuen. Umeak ez zuen gehiegi erreakzionatu, lotsatuta ikusten zitzaion besterik ez. Irakasleak esertzeko eskatu zien umeei eta beste praka batzuen bila joan zen. Kutxa batean hainbat ekarri zituen eta aukeran eman zion umeari nahi zituenak hartzeko eta aldatzeko. Aldatzen zen bitartean irakasleak gertatutakoaz hitz egiteko aprobeztatu zuen eta ikaskideak zeraman janzkeragatik barrerik egin behar ez zela azaldu zuen modu serioan. Hala ere, fokua ez zuen janzkera librearen diskurtsoan jarri. Horren ordez, umearen erabakia izan ez zela azpimarratu zuen: *“berak ez du praka hauek janztea erabaki, jantoki orduan arazo bat eduki du eta berarenak ez diren praka batzuk eman dizkiote”*. Gatazka bertan gelditu zen eta klaseko zereginekin jarraitu zuen irakasleak.

Beste gertaera bat praktikaldien erdialdean gertatu zen. Emozioen tailerra egiten geundela, jarduera honakoa zen: irakasleak 3 abesti/soinu jarriko zituen eta umeei entzundakoak transmititzen ziena orri zuri batean marraztu behar zuten. Lehen soinua tetrikoa izan zen (trumoiak, ekaitza, haizea, oihuak...). Marraztutakoa aztertzea joan ginenean eta bakoitzak sentitu zuena azaltzean, mutil batek poza sentitu zuela esan zuen eta hondartza eguzkitsu bat zeukan marraztuta, gainontzeko guztiek beldurra eta antzeko emozioak deskribatu zituzten bitartean. Berak beldurrik ez zuela eta hori negartien gauza zela adierazi zuen. Horrela, beste bi mutil ideia horretara batu ziren. Irakasleak hori normalena ez dela esan zuen eta hurrengo abestia entzuterara pasatu ginen.

Jolas-orduari dagokionez, aurtengo COVID-19 egoera dela eta, patioko eremu batera mugatzen zen haien aisialdi-espazioa. Orokorrean umeak nahiko nahasturik ibiltzen ziren arren, bazeuden errepikatzen ziren hainbat patroi. Mutil taldetxo bat porteria inguruan biltzen zen askotan, baloirik eduki ez arren, hori haien konfort gunea izango balitz bezala. Neskak, aldiz, eskolako eraikineko horman eserita ibiltzen ziren jolas lasaiagoetan ibiltzen.

Irakasleari dagokionez, gizonezkoa da baina ez du gizontasun hegemonikoaren eredia jarraitzen. Hortik hasita, umeentzako erreferente maskulino egokia dela azpimarratu nahiko nuke, bakoitzaren nortasunak ere asko transmititzen duelako. Gainera, gaiarekiko inplikazio handia erakusten zuen. Garrantzi handia ematen zion umeen

hezkuntza hezkidetzaleari eta hau lantzeko ahalegin asko egiten zituen. Nire praktikaldiak iraun bitartean, hainbat bideo desberdin jarri eta landu zituen gelan:

- Eitb-ek transmititutako *Barre Librea* programan transexualitateari buruzko bakarrizketa: <https://www.eitb.eus/eu/barre-librea/transexualitatea>
- Naizen elkarteak zabalduko mikroipuina: <https://naizen.eus/portfolio/munduak-guztionzat-beharko-luke>
- Arturo eta Klementina ipuina: <https://www.youtube.com/>
- Arroza eta leuna ipuina: <https://www.youtube.com/watch?v=G2a6tFkp3p8>
- Abestiak ikasi eta dantza egin: *Konplize ditut denak eta Nire gorputza da*.

Gainera, tutoretza orduetan hainbat jarduera interesgarri egin ziren. Lehena martxoak 8ko egunera bideratuta zegoen (ikusi 3. eranskina). Bigarrena eta hirugarrena, genero-estereotipoak lantze aldera burutu ziren (ikusi 4. eta 5. eranskinak).

Irakasleak gaiarekiko kontzientzia zuen arren, nire iritziz, gabezia batzuk erakusten zituen. Esaterako, aurretik azalduko gertaeretan ez zituen erantzun egokiak eman edo ez zuen egoeraren lanketa nahikoa egin. Patioan ere ez zuen deskribatutako egoera aldatzeko ahaleginik ez proposamenik egin. M1 eta N1 bezala izendatu ditugun ikasle hauei ez die arreta berezirik ematen, eta nire ustez, ume hauek haien jarreraren bidez zabaltzen dituzten mezuak oso ezkorrak eta kezkarriak dira, gainontzeko ikasleentzako eredu direlako. Ume hauen portaerak mozten ez diren heinean, jarrera hauek onargarriak direla erakusten dugu inplizituki.

Bestalde, eduki kurrikularretan ez zuen generoaren arabeko analisirik egiten, eta ez zuen mezu sexistak detektatzeko eta aldatzeko gaitasunik erakusten. Esate baterako, egin genituen lau entzumenetatik, bitan mezu inplizitu kezkarriak zabaltzen ziren. Lehenak (ikusi 6. eranskina) neska txiki baten istorioa kontatzen zuen, eskolara joatea gustatzen ez zitzaiola mutil handikote batek jo egiten ziolako. Horrelako batean, lehoi batekin topo egin zuen eta geroztik pozik joaten zen klasera, berarekin seguru sentitzen zelako, animaliak mutil handikote honetaz babesten ziolako. Beste entzumenean (ikusi 7. eranskina) bi anai-arreba entzuten dira hizketan, eta eskolan zabaldu den beldurrezko istorio batetaz ari dira solasean. Holako batean, neska negarrez hasten da beldurra daukala esanez, eta bere nebak kontsolatu egiten du paper ausartagoa hartuz.

Nire iritziz, generoaren ikuspegitik analisi minimo bat egiteko gai den irakasle batek entzumen hauek alde batera utzi beharko lituzke edo behintzat, umeekin entzun denaren hausnarketa bat egin eta istorioari buelta bat eman. Horregatik, kasu konkretu hauetan

nire kezka tutoreari azaldu nion eta berak arrazoi nuela esan zidan. Bigarren entzumenerako, beraz, galdetegian azken galdera klabe bat sartu zuen (ikus 8. eranskina), umeekin hausnarketa bat egiteko helburuz.

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENA

Proposamena egin ahal izateko zehaztutako helburuak bete direla esan daiteke. Lehenik, gaiaren hurbilketa egin da eta honen inguruko azalpenak aurrera eraman dira azterketa eta bilaketa bibliografikoari esker. Bigarrenik, galdetegiarekin gaur egungo irakasleek hezkidetzarekiko duten atxikimenduaren berri izan dut. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak planteatutako Hezkidetzeta-Planari buruz informazioa biltzeko aukera izan dut, eta hau eskola batean ezarrita egotearen abantailatz jabetzeko baliagarria izan zait. Azkenik, ikasgela bat behatzea errealitatea zuzenean ezagutzeko eta irakasle batek behar dituen jakintzetaz jabetzeko onuragarria izan da.

Egindako ikerketa guztietan argi gelditu da irakaslegoaren artean gabezia handiak daudela eta arlo honetan aurrerapauso handiak gelditzen direla egiteko. Hasteko, galdetegiaren bitartez eskola desberdinetako irakasle askok erakutsi dute gai honekiko dagoen konpromezua txikiegia dela, eta batez ere, gai honi aurre egiteko edo honen lanketa egiteko prestakuntza nahikoa ez dutela. Izan ere, erdiak baino gehiagok formazio minimoa duela adierazi arren, gaiarekiko ezjakintasuna orokorra dela baieztatu da. Ezjakintasun orokortu hori oso kezkarria eta arriskutsua da generazio berriak hezitzerako orduan, umeen erreferente nagusiak helduak direlako eta helduek transmititzen dutena errepikatzeko joera dutelako. Are gehiago irakaslea izanik, familiarekin batera umeen eredu nagusiak baitira. Dena den, aipatu beharra dago galdetegian parte hartutako erdiak 40 urtetik gorakoak direla eta azken 10 urteetan gizartea asko aurreratu dela, gaur egungo gazteria kontzientziatuago dagoelako eta problematika honen inguruan bisibilizazio handiagoa dagoelako. Beraz, era batean “normala” da generazio helduen artean interesa txikiagoa izatea, haien ikasle garaian informazioa eskuratzeko erraztasun gutxiago baitzuten.

Aurretik aipatu den bezala, feminista izan edo ez izan erabaki politikoa da eta umeak pedagogia feministaren ikuspegitik hezitzea norberaren ideologiaren barruan sartzen den lehentasuna da. Argi dago formakuntza batek ez duela pertsona bat politikoki aldatzeko indar nahikorik baina ezjakintasunari aurre egiteko arma garrantzitsuena da eta gauzak birplanteatzeko eta ikasitakoa “desikasteko” baliagarria da. Adibide zehatz moduan Zabalrana ikastola dugu. Bertan Hezkidetzeta-Plana martxan egonik irakasle

guztiek formakuntza jasotzeko derrigortasuna dute eta aldi berean, praktika batzuk aurrera eramateko beharra (testuliburua aztertu eta genero aldetiko analisisa eta moldaketa egin). Modu batez, zentroko irakaslego osoaren inplikazioa lortu da ikastetxe horretan, Samaniego eskolarekin alderatuz.

Aldiz, behatutako tutoreak inongo formaziorik jaso ez arren eta eskola horretan Hezkidetza-Plana martxan ez egonik, hezkidetzaren printzipioa bere lehentasunen artean dago eta egunerokotasuneko ekintza eta jarrera desberdinen bitartez erakutsi du. Hala ere, esan dugunez gabezia batzuk ikusi dira eta bertatik atera daitekeen konklusio modura, hutsunea informazio edo baliabide faltan egon daiteke. Irakasle honek generoa eta aniztasunaren arloan kontzientzia handia erakusten duen arren (LGTB kolektiboan batez ere), emakumearen ahalduntze eta bisibilizazioaren inguruan informazio falta asko nabari zaio. Horregatik, kasu honek argi uzten du gaian inplikaturik egon arren, beti daukagula ikasteko eta hobetzeko zerbaitekin.

Formakuntza egoki baten bidez momentura arte ditugun ideia eta eskemak deseraiki daitezke eta gai baten inguruan edo konkretuki, arlo baten inguruan kontzientzia piztu. Horregatik, formazio hori ahalik eta lasterren jasotzea oso garrantzitsua da, eta fokua unibertsitateko graduan jarri beharra dagoela iruditzen zait. Hala ere, behin irakasle bihurtuta urteroko formakuntza bat beharrezkoa izan beharko litzateke, eskolaren eta bertako ikasleen ezaugarriak direnak direlarik.

Laburtuz, jasotako informazio guztiarekin hainbat konklusio sintetiko atera ditut:

- Eusko Jaurlaritzaren partetik Hezkidetza-Plan bat eratzea eta zentro guztiei eskaintzea inizatiba ona den arren, eskaintza hori mugatua izatea eta plaza batzuk soilik erabilgarriak izatea aldatu beharreko zerbaitekin dela iruditzen zait. Gainera, gai honetan interes berezia duten edo profesional kontzientziadunekin kontaktzen duten eskolek soilik izango dute proiektu honetan parte hartzeko inizatiba, gainontzeko guztiak kanpoan geldituz. Funtzionamendu-metodo hau izan ordez, Hezkidetza-Plana nahitaezko moduan eskola guztietan txertatu beharreko proiektua izan beharko litzateke.
- Hezkidetza-Plana txertatzearekin batera, irakaslego osoak formakuntza berdina jasotzea derrigorrezkoa izan beharko luke, eta ez eskola bakoitzak planteatutako lehentasunen arabera. Izan ere, irakasle asko urtetik urtera zentroz aldatzen dira eta batzuei formakuntza jasotzeko aukera aurkezten zaien bitartean, beste batzuei ez zaie hautabide hori ematen.

- Unibertsitatean formakuntza bat ez ezik, hezkidetzaren inguruko ikasgai edo minor bat ezarri beharko litzateke. Hala ere, minorrean lanketa sakonagoa egingo dela argi dagoen arren, gai honetan interesa daukaten ikasleek soilik aukeratuko dute; eta beti bezala, behar gehien duten ikasleei edo gaiarekiko kontzientzia txikiena dutenei beste alde batera begiratzeko askatasuna emango zaie. Horregatik, Lehen Hezkuntzako Graduan minorra eskaintzeaz gain, oinarrizko ikasgai bat txertatu beharko litzateke.

Ondorio hauek oinarri hartuta eta gaur egungo errealitatera bueltatuta, Hezkidetzeta-Plana eskola guztietan txertatzen ez den bitartean, etorkizunean irakasle bihurtzen garenean bi motatako eskolekin aurkitu gaitezke: hezkidetzeta modu sakonean lantzen den eskola (Zabalgana adibide), edo hezkidetzeta lehentasunen artean aurkitzen ez den ikastetxea (Samaniego esaterako). Lehenengoaren kasuan, Hezkidetzeta-Plana zer den, nola funtzionatzen duen, eta bertan nola lagundu dezakegun jakin beharko genuke. Bigarrenaren kasuan, lanketa propio bat egiteko (behaketa bidez aztertutako tutoreak bezala) edo ikastetxean proiektu edo mintegi bat osatzen hasteko inizatiba eta kontzientzia izan beharko genuke.

Guzti horretarako, unibertsitatetik ateratzerakoan honen inguruko informazio nahikoa jasota edukitzea guztiz garrantzitsua da. Beraz, lan honi amaiera emateko, Lehen Hezkuntzako Graduan txertatu beharko litzatekeen ikasgaiak eskema hipotetiko hau jarraitzea proposatzen dut:

2. Taula

Ikasgaiaren eskema

		HELBURUAK	EDUKIAK
1. astea	1. Gaiaren hurbilketa	- Patriarkatuaren historia eta feminismoaren sorrera eta eboluzioa ezagutzea. - Patriarkatu eta feminismoaren lotutako glosarioa ulertzea.	- Sistema patriarkala eta feminismoaren kontzeptualizazioa: historia. - Definizioak: sistema patriarkala, feminismoa, androzentrismoa, generoa, sexua, sexu-genero sistema, heteronormatibitatea, transgenero/transsexual, intersexual, homosexual, bisexual, queer, maskulinitate hegemonikoa, genero-analisia, indarkeria (fisikoa eta sinbolikoa).
2. astea			
3. astea	2. Feminismoa	- Gizon hegemoniko ereduaren lanketa eta honen desmaskulinizazioa.	- Gizontasun hegemonikoaren definizioa, honek gizartean dituen pribilegioak eta eredu hori deseraikitze-aren garrantzia. - Irakasle gizonen desmaskulinizazioa.

4. astea		- Emakumeen errealitatearen kontzientzia eta hauen enpoderamendua. - Genero-rol eta estereotipoen apurketa, eredu trans, queer, homosexual eta bestelakoei aipamen berezia eginez.	- Emakumearen ahalduntzea: autodeterminazioa eta autonomia ekonomikoa, familiarean eta etxean betetzen duen papera, edertasun-kanonen eta emakumearen izaera estereotipatuaren gaineko hausnarketa, gorputza eta sexualizazioa. - Genero-rolen banaketa, hauek gizartean nola erreproduzitzen diren eta nola eragiten duten. - Genero-rolen apurketaren garrantzia. - LGBTBI+ kolektiboa.
5. astea			
6. astea			
7. astea	3. Generoa eta eskola: hezkidetza	- Eskolak gizarte patriarkalarekin izan duen eta oraindik daukan harremana identifikatzea. - Irakaslearen papera aztertzea, umeen genero-identitatearen garapenean nola eragiten duen hausnartuz.	- Eskolaren eboluzioa. - Hezkidetzaren sorrera eta kontzeptualizazioa. - Eskola eta generoa: emakumeek eta gizonek zentroan betetzen duten papera, genero-rolen erreprodukzioa, espazioen banaketa, curriculum. - Irakaslearen jarrera, ideia eta jokaeren azterketa. - Ikasleak tratatzeko joerak. - Umeen genero-identitatea.
8. astea			
9. astea			
10. astea			
11. astea	4. Hezkidetza-Plana	- Eusko Jaurlaritzak diseinatutako Hezkidetza-Plana ezagutzea. - Zutabeen lanketa sakona egitea.	- Hezkidetza-Plana: txostenaren analisia. - Hezkidetza-Planaren funtzionamendua. - Zutabeen lanketa.
12. astea			
13. astea			
14. astea			

Guzti hau aurrera eramateko metodologia desberdinak erabili daitezke. Ikasgaiaren zati teorikoa lantzeko Berritzegune eta Emakunderen txosten desberdinetan oinarrituko nintzateke eta azalpenak aurkezpen moduan eman, ikasleen parte-hartzea betiere bermatuz. Era berean, gaur egun feminismoa eta hezkidetza lantzeko eduki oso interesgarria eta aproposa duten baliabide audiobisualak existitzen direla aprobetxatuz eta gaur egungo gazteriari formatu hau erakargarriagoa egiten zaiola kontuan hartuz, hauetan oinarrituko nintzateke kontzeptu batzuk azaltzeko. Hala ere, nik pertsonalki oso ikasgai aktiboa izan daitekela pentsatzen dut eta gehiengo edukiak mahai-inguru formatuan landuko nituzke, eztabaida eta debate desberdinak planteatuz. Ikasgaia era “informal” batean bideratuko nuke, formaltasunak edo akademikotasunak gaiarekiko interesa apurtzen duela pentsatzen dudalako. Gainera, bakoitzak dituen ideiak plazaratzeko espazio segurua eratzten saiatuko nintzateke. Adibide bezala, hurrengo eztabaidak sortu litezke:

- Mutila zaren heinean, zer pribilegio dituzu? Eta neska zaren heinean, zer opresio?
- Eskolan, tratu-berdintasuna al dago neska eta mutilekiko?
- Baloirik gabeko egunak: alde edo kontra zaude?

- Hizkuntza sexista al da?


Bestalde, kanpoko erakunde eta elkarteak (Naizen eta Emakunde adibidez) zein generoaren inguruan ikerketa eta ikasketa sakonak egin dituzten autore desberdinak (Beatriz Ugarte eta Amelia Barquín esaterako) klasera ekartzea oso garrantzitsua iruditzen zait, hitzaldiak (transgenerotasuna), tailerrak (maskulinitate tailerra), proiektuak (Beldur Barik, Nahiko, Hezkidetza-Plana) eta bestelakoak aurkezte aldera. Klaseetan ikasitako guztia biltzeko portfolioa erabili daiteke. Portfolioa ikaskuntzaren jarraipena egiteko sistema bat da, barneratutako jakintzak laburbiltzeko eta ordenatzeko eta hobetzeko dauden eremuak agerian uzteko aukera eskaintzen duena, hausnarketaren bidezko ikaskuntza bultzatuz. Beste hitz batzuetan esanda, portfolioa eguneroko batekin konparatu daiteke, zein klase bakoitzean egindako guztia idazten den eta ikasitakoaren inguruko hausnarketa egiteko aukera luzatzen duen.

Azkenik, ikasgaiari amaiera emateko proiektu bat proposatuko nuke: klasea zortzi taldetan banatu eta bakoitzak Hezkidetza-Planeko zutabe baten lanketa sakona egin, zutabea lantzeko interbentzio pedagogikoa sortuz.

Bukatzeko, ebaluazioari formatu hau emango nioke:

2. Grafikoa

Ebaluazioa



7. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, I. & Matas, N. (2002). *La violencia doméstica: informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Barcelona: Fundación la Caixa.
- Anguita, R. (2011). El reto de la formación del profesorado para la igualdad. *Revista electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 14(1), 43-51.
- Álvarez-Uria, A. (2007). Zergatik erabili behar dugu hizkera ez-sexista?. *HIK HASI*, 116, 32-34. 2021eko martxoaren 21ean berreskuratua:
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20070302/zergatik-erabili-behar-dugu-hizkera-ez-sexista>
- Álvarez-Uria, A., Vizcarra Morales, M. T., & Lasarte Leonet, G. (2019). El significado y la evolución del término «coeducación» con el cambio de siglo: el caso de los centros escolares de Vitoria-Gasteiz. *Tendencias Pedagógicas*, 34, pp. 62-75.
- Argibay, M., & Celorio, G. (2005). *La Educación para el desarrollo*. Vitoria: Gobierno del País Vasco.
- Arín, P. & Vizcarra, M.T. (2019). Durangoko ikastetxeen ikusmoldea jolastokiaren eta jolas-orduaren inguruan. En R. Gamito, J. Martínez eta M.T. Vizcarra. *XXVI psikodidaktikako ikerkuntza jardunaldiak* (47-66). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aristizabal, P., Gomez-Pintado, A., Ugalde, A. I., & Lasarte, G. (2017). La mirada coeducativa en la formación del profesorado. *Revista Complutense De Educación*, 29 (1), 79-95. 2021eko urriaren 20an berreskuratua:
<https://revistas.ucm.es/index.php/RCED/article/view/52031/52628>
- Ayuste, A., Rodríguez Menéndez M.C., Vila Merino E.S. & Valdivielso Gómez S. (2016). Educación y género en la formación docente en un enfoque de equidad y democracia. En I. Carrillo i Flores. *Democracia y Educación en la formación docente*, 117-140. Barcelona: Universitat de Vic-Universitat Central de Catalunya.
- Beauvoir, S. (1981). *El segundo sexo*. Buenos Aires: Siglo Veinte.

Bengoechea, M. (2005). *Sexismo y androcentrismo en los textos administrativo-normativos*. Alcalá: Universidad de Alcalá. 2021eko martxoaren 20an berreskuratua:

<https://www.upm.es/sfs/Rectorado/Gerencia/Igualdad/Lenguaje/sexisimo%20y%20androcentrismo%20en%20texto%20administrativos.pdf>

Broverman, I.K., Raymond, S., Broverman D., Clarkson, F. & Rosenkrantz, P. (1972). Sex-role stereotypes: a current appraisal. *Journal of Social Issues*, 28 (59-79).

Cañete Peces, L. (2017). Una mirada al feminismo, desde su origen hasta nuestros días. En L. Martínez Peñas, M. Fernández Rodríguez y E. Prado Rubio. *Estudios sobre derechos humanos* (293-309). Valladolid: Omnia Mutantur S.L.

Carretero Bermejo, R., & Nolasco Hernández, A. (2017). Sexismo y formación inicial del profesorado. *Educar*, 55 (1), 293-310.

Emakunde (d.g). Glosarioa. Honako web orrialdetik berreskuratua:

<https://www.emakunde.euskadi.eus/GLOSARIO>

Emakunde (2020). Hiztegia: Feminismoa eta Berdintasuna. Coediciones. 2021eko otsailaren 6an berreskuratua: <https://www.emakunde.euskadi.eus/HIZTEGIA>

Eusko Jaurlaritza (2019). *EAE-ko Hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023*. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila

Franco Aragoncillo, R. (2015). *Feminismo: asignatura pendiente* (Trabajo de Fin de Grado). Universidad Computense de Madrid. 2021eko urriaren 15ean berreskuratua:

https://eprints.ucm.es/35795/2/Franco_Aragoncillo_R.pdf

Ferreiro Díaz, L. (2017). (Co)educación afectivo-emocional y sexual, para despatriarcalizar la escuela y caminar hacia la igualdad. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas*, 2(1), 134-165. 2021eko urriaren 15ean berreskuratua:

https://revistas.udc.es/index.php/ATL/article/view/arief.2017.2.1.1771/1771_pdf

- Gamba, S. (2008). *Feminismo: historia y corrientes*. Mujeres en red: El periódico feminista. 2021eko otsailaren 2an esteka honetatik berreskuratua: <http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1397>
- Garay, B., Vizcarra, M.T. & Ugalde, A.I. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. *Teoría de la educación*, 29 (2), 185-209.
- Gimeno, B. (2017). Heteronormatibitatea. Pikara magazine: Glosarioa. 2021eko otsailaren 20an berreskuratua: <https://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=h&ter=heteronormatibitatea>
- Giroux, H. (1999). Modernismo, posmodernismo y feminismo. Pensar de nuevo las fronteras del discurso educativo. En M. Belausteguieta y A. Mingo. *Géneros prófugos. Feminismo y educación* (135-188). México: Paídos.
- Herrera, C. (2017) Genero identitatea. Pikara online magazine: Glosarioa. 2021eko otsailaren 2an berreskuratua.
- Lagarde y de los Ríos, M. (2011). *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*. Madrid: Horas y horas.
- Lamas, M. (1986). "La antropología feminista y la categoría de género", Nueva Antropología, vol. VIII, nº 30, México.
- Lerner, G. (1990). *La creación del patriarcado*. Barcelona: Editorial Crítica, S.A.
- Martínez Martín, I., & Ramírez Artiaga, G. (2017). Des-patriarcalizar y Des-colonizar la Educación. Experiencias para una Formación Feminista del Profesorado. *Revista Internacional De Educación Para La Justicia Social*, 6(2).
- Maceira Ochoa, L.M. (2006). Más allá de la coeducación: pedagogía feminista. *Educar: Revista de educación*, 1, 27-35.

- Martínez Martín, I. (2016). Construcción de una pedagogía feminista para una ciudadanía transformadora y contra-hegemónica. *Foro de Educación*, 14(20), 129-151.
- Morgade, G. (2017). Contra el Androcentrismo Curricular y por una Educación Sexuada Justa. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 6 (2), 49-62.
- Ortner, S. B. (1974). Is female to male as nature is to culture? In M. Z. Rosaldo and L. Lamphere (eds), *Woman, culture, and society* (68-87). Stanford, CA: Stanford University Press. 2021eko urtarrilaren 11an berreskuratua:
http://radicalanthropologygroup.org/sites/default/files/pdf/class_text_049.pdf
- Parrondo Copel, E. (2009). Lo personal es político. *Trama y fondo: revista de cultura*, 27, 105-110.
- Pérez, A. (2020). Los cuidados son la cara B del sistema. 2021eko otsailaren 15ean berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=RkOG2JCboTY>
- Pita Fernández, S., Pértegas Díaz, S. (2002). *Investigación cuantitativa y cualitativa*. A Coruña: Unidad de Epidemiología Clínica y Bioestadística. Complejo Hospitalario-Universitario Juan Canalejo.
- Riviere, J. (2017) Gizontasun hegemonikoa. *Pikara magazine: Glosarioa*. 2021eko otsailaren 20an berreskuratua:
<https://glosario.pikaramagazine.com/glosario.gizontasun-hegemonikoa>
- Rodríguez-Jaume, M.J. (2008). *Técnicas de investigación cuantitativas y cualitativas en criminología*. Alicante: Repositorio Institucional de la Universidad de Alicante
- TUPI gara. (2018). Diseño para la transformación. Bilbo: *Eraldaketarako diseinua*. 2020 apirilaren 2an berreskuratua: <https://wearetipi.co/74/noticias/bilbao-design-week-?lang=eu-tik>.
- Ugarte Maiztegi B., Otaduy Bengoa M.L. eta Irigoyen Perurena M.J. (d.g.). *Irakurgaia: Hezkidetzaren alde busti! Betaurrekoen garrantzia*. UPV/EHUko Berdintasuneko Zuzendaritza.

Urruzola, M. J. (2006). *Cordobako Udalaren Berdintasun Ordezkaritzak egindako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko foroan aurkeztutako txostena.*

Valcárcel, A. (2011). *El espejismo de la igualdad*. Mujeres en red: el periódico feminista. 2021eko otsailaren 16an berreskuratua:
<http://www.mujiereenred.net/spip.php?article1939>

Varela, I. [LaTuerka]. (2014, azaroak 15). El Tornillo 2x07 – “La belleza”. 2021eko otsailaren 7an berreskuratua:
https://www.youtube.com/watch?v=gRfIV1FXowc&list=PL_TQLyNxacHv14eD91rEFncoexMB0rrDa&index=86

Varela, I. [LaTuerka]. (2015, martxoak 17). El tornillo 2x23 – “El espejismo de la igualdad”. 2021eko otsailaren 7an berreskuratua:
https://www.youtube.com/watch?v=llad8F1a5YU&list=PL_TQLyNxacHv14eD91rEFncoexMB0rrDa&index=70

Wolf, N., & Reynoso, C. (1992). El mito de la belleza. *Debate Feminista*, 5.

8. ERANSKINAK

1. eranskina

1. Ikastetxearen izena, generoa eta adina idatzi.
2. Jaso al duzu noizbait generoari buruzko formakuntzarik, unibertsitate garaian zein irakasle lanak egiten dituzunetik? (ikastaroak, jardunaldiak, liburuak...).
3. Generoaren gaiaren inguruan jakintza edo prestakuntza nahikoa duzula uste duzu?
4. Nola azalduko zenuke "genero" kontzeptua?
5. Argi dago gizarte desorekatu batean bizi garela eta bizi dugun errealitatean genero-desberdintasun asko aipatu daitezkeela. Zure ustez, ba al daude genero-desberdintasunak eskolan?
6. Zure ustez, ba al da hezkuntza gizarte sexista honen konplize?
7. Irakaslea zara eta hortaz, umeengan eragile garrantzitsua.... Inoiz hausnartu duzu zure jarrerak, erabakiek, ideiek etab. nola eragiten duten umeen generoaren garapenean?
8. Testuliburu eta eduki kurrikularretan, orokorki, ez da generoaren lanketarik egiten. Egin al duzu zuk ikasgelan, zure erabaki propioz, lanketa bereziren bat generoaren inguruan (estereotipoak, homosexualitatea, transexualitatea, emozioak, harreman sexu-afektiboak...)? Baiezko kasuan, azaldu laburki.
9. Gizartean uneoro erreproduzitzen dira genero-estereotipoak eta rolak. Hauek gizartean gugandik espero dena izatera behartzen gaituzte. Hausnartu al duzu inoiz genero-arauen apurketaren garrantziaz? Baiezko kasuan, egiten al duzu ikasleekin lanketarik egunerokotasunean genero-estereotipoak apurtzeko?
10. 1etik (txikia) 10era (handia), nola baloratzen duzu zure burua gai honekiko duzun inplikazioan?

2. eranskina

ZABALGANAKO ELKARRIZKETA:

1. Lehenik eta behin, eskolako hezkidetzaren arduraduna zarela azaldu zenidan. Zergatik izan zara ardura hau hartzeko aukeratua? Norbaitek postu hau hartu behar zuelako egokitu zitzaizun ala bereziki honetarako prestatuta zaudelako zaude hemen?
2. Zeintzuk dira zure ardurak?
3. Zabalgana eskola konkretuki aukeratu nuen Eusko Jaurlaritzak diseinatutako hezkidetzaren plana martxan dagoelako. Azaldu ahalko zenuke, laburki, zertan datzan hezkidetzaren plana hemen?
4. Funtzionalitate hori daukagu esango zenuke? Benetan al da baliagarria?
5. Jaso al dute irakasleek formaziorik hezkidetzaren aurrera eraman ahal izateko? Kasu horretan, noiz eta nolakoa?
6. Formakuntza hori nahikoa dela uste duzu? Zer proposatuko zenuke zuk irakasleen formazio falta hobetzeko?
7. Hezkidetzaren plana zortzi zutabe ditu. Denak lantzen al dira eskolan? **Nola** lantzen dira?
8. Zeintzuk esango zenuke direla hezkidetzaren gabeziak?
9. Hezkidetzaren planaz haratago, garrantzi berezia ematen al zaio hezkidetzaren kontuari ikastetxean? Irakasleei inplikazio minimo bat exijitzen al zaie?

SAMANIEGOKO ELKARRIZKETA

1. Ba al dago hezkidetzaren arduradunik eskolan?
2. Ba al daukaguz proiektu propioak hezkidetzaren lantzeko? Zer motatako garrantzia ematen zaio hezkidetzari eskolan eta zer nolako inplikazioa eskatzen zaie zentroko irakasleei?
3. Jaso al dute irakasleek formaziorik gai honen inguruan? Noiz eta nolakoa?
4. Hezkidetzaren plana martxan ez dagoen eskola batean, uste al duzu irakasleek hezkidetzaren plana martxan dagoen eskolan bezain formazio aberasgarria izan behar dutela?
5. Zein uste duzu direla hezkidetzaren behar ez bezala ez lantzearen arrazoi nagusiak?

Formazioa

Denbora

Interesa

Lankidetzaren

Baliabide eta material falta

3. eranskina





4. eranskina

NOLAKOAK DRA? MARKATU "X" BATEKIN

	NESKAK	MUTILAK
JATORRAK	X	X
INDARTSUAK		X
ALUSARTAK	X	X
AHULAK	X	
BELDURTIAK	X	X
LANGILEAK	X	X
ETXEKO LANAK		X
EGITEN DITUZTENAK	X	X
SENTIKORRAK	X	X
ALAIK	X	X
PAZIENTZIA	X	X
HANDKOAK	X	X
KASU EGITEN DUTENAK	X	X
PERTSONAK ZAINZEN DITUZTENAK	X	X
GOZOAK	X	
BHURRIAK	X	X
ERREBELDEAK		X

5. eranskina



6. eranskina



04 BAIETZ ULERTU - Lehoi bat eskolan.mp3

7. eranskina



09 HASIERAKO ENTZUNGAIA - Albiste beldurgarria.mp3

8. eranskina

ALBISTE BELDURGARRIA

1. Nolakoak dira pailazoak?
 - a) Aspergarriak
 - b) Tristeak
 - c) Barregarriak
2. Non ikusi du albistea?
 - a) Telebistan
 - b) Irratian
 - c) Egunkarian
3. Zer dio egunkariak?
 - a) Parke alboko etxe zaharra botako dute eta hotela egingo dute.
 - b) Parke alboko etxe zaharra botako dute eta jatetxe bat egingo dute.
4. Zer pentsatzen dute ikastetxeko lagunek?
 - a) Etxe zaharra hutsik dagoela.
 - b) Etxe zaharrean mamuak eta sorginak bizi direla
 - c) Etxe zaharrean momia bat bizi dela.
5. Zer sentitzen du Maitek albistea entzutean?
 - a) Poza
 - b) Beldurra.
 - c) Tristura.
6. Zuen ustez Maite bakarrik beldurtu al da?
 - a) Ez, Ibai ere beldurtu da nahiz eta ez adierazi.
 - b) Bai, Maite bakarrik beldurtu da,

